

2008ko maiatza

71. zenbakia

aikor!

txorierriko aldizkaria



Josune Karega

Misiolaria Hegoamerikan

ITZIAR
ITUNOASIER
HOYMAZARAMON
AGIRREJOSEBA
APARIZA

Lekua: Gurea Aretoa (Derio)
Eguna: Ekainak 11
Ordua: 19:30

Salneurria: 3 €

Sarrerak salgai:
Mankomunitatean
Euskaltegietan
Liburutegietan

TXALOK
AURKEZTEN DU

Grönholm METODOA

ZUZENDARIA:
CARLOS ZABALAEGILEA:
JORDI GALCERANITZULPENA:
JULIA MARIN



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria, Eder Merino eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Bego Vicario, Iñaki Berazategi, Joseba Butron, Fernando Larrondo, Oihana Astobieta, Belen Gana, Iñaki Bilbao, Juan Luis Goikoetxea eta Juantxu Bilbao.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Abxutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

28 Euskal Astea, Zamudion



14 Sondikako jaiak

30 Arte Urbano



16 Argazki rallyak, Txorierriin



12 Pirritx eta Porrotx



AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
11Behargintza 12Gurean izan da... Pirritx eta Porrotx
14Gaztea eta... Sara Gandara 16Argazki rallyak
Sondikan eta Derion 22Sondikako San Joan jaiak
26Larrabetzuko ondare historikoaren inaugurazioa
28Euskal Astea, Zamudion 30Arte Urbano taldea
32Osasuna 33Teknologia 34Musika 35Argazki zaharra
36Sukaldaritza 37Denborapasa 38Agenda



HARAGIETEGIA
ALBERTO

Txorierri etorbidea. 5
Tlf.: 452 04 25
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)

AMARU ZAMUDIO
CAFE + BAR
ARETXETA
L. 10:00h - 14:00h
T. 945 13 22 28
C/URRIAK - 1.º ETORRA - PLAZA KONGINUAU - 48016 ZAMUDIO - VIZCAYA



ESTILISTA
EVA ARDINES

NEKA-MUTILEN
11-14h / 17h-20h

AmAr

Antzaria - Oteiza - Barrio - 140m
Larrabola - Barrio - 140m

Urbe Plaza, 1 - Dehe - 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 34 19 (Aurkeko izanda)



BEGO VICARIO
(Irakaslea)

Lehengo egunean film berezi bat ikusi nuen Bilboko Fant zine jaialdiaren barruan. Lars izeneko tipoa herri txiki baten bizi zen, eta besteekiko harremana zail suertatzen zitzaion; ukitzeak ere mina ematen zion. Bere etxebizitza zen garajearen ondoko etxean anaia eta haren emaztea bizi ziren. Horiek Lars erakartzen eta laguntzen saiatu arren, ez zuten lortzen. Harik eta Larsek neskalaguna topatu zuen arte. Neska gazte eta ederra zen, brasildarra eta elbarria. Gorpildun aulki batean egoten zen jesarrita, eta Larsek hartu behar izaten zuen besoetan, leku batetik

Fantasia

bestera mugitzeko.

Hasiera batean, eta nahiz eta mutila pozik ikusi, errezelotsu erreakzionatu zuten familiakoek eta herrikoek. Bianca izeneko neska bitxia eta kanpotarra zelako; eta, gainera, ez zuen berbarik egiten. Baina laster konturatu ziren poz handia ematen ziola Larsi, komunikatzeko hainbeste zailtasunak izan ondoren zabaltzen hasi baitzen. Harremanetan traba gutxiago izaten eta besteen kontaktua onartzen joan zen pixkanaka-pixkanaka. Herri osoa hasi zitzaion laguntzen Biancari: lana eskaini zioten, boluntario lanetarako ere lekua egin zioten parrokan, eta urtebetetze zein bestelako ospakizunetara gonbidatzen zuten, herriko bizitzan guztiz bertakotu arte.

Herriko abadeak ere garrantzia izan zuen prozesu guzti horretan, Bianca beste erlijioako batekoa izan arren elizan hartu zuelako eta hura onartzera animatzen zituelako herrikideak. Baita medikuak ere. Horrek hipertentsiorako tratamendua jartzen zion astero neskari eta, bide batez,

solasaldi ederrak izaten zituen Larsekin.

Medikuak neskalaguna oso gaixorik zegoela esan zion mutilari. Eskerrak!, zeren eta egun batean Biancak konortea galdu zuen etxean, eta Lars urgentzietara garaiz deitzeko kapaz izan baitzen. Biancak episodio hori gainditu zuen anbulantziari esker; baina, hala ere, ez zuen luzarotan iraun, eta handik gutxira hil egin zen. Herrikide guztiek eman zizkioten doluminak Larsi, eta loreak ere bidali zituzten. Eta gutxi batzuk ondo-ondoan izan zituen mutilak neskalagunaren gaixotasunaren azken egunetan.

Hileta egunean maitasunari buruz hitz egin zuen abadeak, eta gauzak eta pertsona aldatzeko duen gaitasunaz. Eta pertsona biren arteko maitasunaz, baita herrikideen artekoaz ere. Eta Lars, minaren minnez, lagunaren besarkadak onartzeko gai izan zen; gustatzen zitzaion bulegoko neska horien tartean. Lurperatu orduko, guztiek ahaztuta zuten Bianca internet bitartez erositako silikonazko panpina sexuala zela.

ANV 7 – PNV 5

Ez daitezela artegatu irakurle jeltzaleak. Goiko izenburu horretatik ez dezatela deduzitu inolako pinza politikorik edo konspiraziorik, alkatetzak ANVren esku dauden udaletan PSOEk zirkulazioan jarri eta Urkulluren alderdiak pozik eta modu nahiko nahaspilatuan bat egin duen mozio ez batere etikoen antza izan lezakeenik.

Ez. Goiko izenburua dirudiena da, ez besterik: futbol partida baten emaitza. Eusko Ekintzaren (ANV) eta Eusko Gudaroztearen (EAJ) selekzioek jokatu zuten 1937ko otsailaren 7an, arrastiko 3etan, San Mamesen; helburua dirua batzea zen "Euzkadi" egazkiñaren alde kanpinaarako. Kanpaina horrekin, dirua batu nahi zen hegazkin bat erosi eta Eusko Jaurlaritzari oparitzeko; era horretan, Errepublikaren aurka altxatutako militarren eta euskal armadaren arteko desoreka gutxitu nahi zen, hura oso nabarmena baitzen aire baliabideei zegokienez.

Domeka zen eta uste da 22.000 lagun joan zirela partida ikustera; zelaia

lepo bete zuten, beraz, orduko San Mamesek oraingoak baino edukiera askoz txikiagoa baitzeukan. Partidan Agirre lehendakaria egon zen buru. Hauek izan ziren talde bien hamaikaok:

Eusko Ekintza (ANV): Egia; Euskalduna, Aedo; Julián Ramón, Kuki Bienzobas, Markuleta; Rejón, Iraragorri (kapitaina), Langara, Bata eta Oianeder.

Eusko Gudaroztea (PNV): Ispizua; Pablito, Areso; Zilaurren, Soladrero, Zubieta; Larrondo, Unamuno, Gurrutxaga, Mandaluniz (kapitaina) eta Gorostiza. Ruizek Larrondo ordezkatu zuen bigarren zatian.

Lehia oso estua izan zen. Lehen zatia 4-3 emaitzarekin amaitu zen ANVren taldearen alde, eta hark irabazi zuen partida behin betiko emaitza honekin: 7-5.

Hilabete eta erdi geroago, 1937ko martxoaren 22an, errebantxako partida jokatu zen; orduko hartan, Eusko Gudaroztearen selekzioak irabazi zuen 3-0 emaitzarekin. EAJk errebantxako partida honetan lortutako garaipena



IÑAKI BERAZATEGI
(Kazetaria)

zalantzan jarri zen, zurrumurruak ibili baitziren ez ote zen iruzurrik egin emaitza horretan, talde bien artean beste partida bat jokatu eta horrela diru gehiago biltzeko.

Hori hala izan zen edo ez alde batera utzirik, gerraren larrialdiek galarazi zuten ANVren eta EAJren taldeen arteko hirugarren partida hori. Hilabete batzuk geroago Euskadi selekzioa izango zenaren ernamuina izan ziren talde bietako futbolariak; selekzio horrek bira arrakastatsua egingo zuen gerra urteetan hainbat herrialdetatik, hala nola Frantzia, Txekoslovakia, Polonia, Errusia, Finlandia, Norvegia, Danimarka, Frantzia, Mexiko, Txile eta Kuba.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Trabak, bideetan

Txorierritik igarotzen den bidea duela berrogei bat urte zabaldu zuten. Gogoratzen dut, gaztea nintzela, bide-bazterretan tamaina handiko haritzak eta zurzuriak zeudela. Eta guztiak bota zituzten bideak edo kaminoak zabalago egiteko.

Kaminoetan arazoak izan dira beti: bihurgune arriskutsuak, bide-zuloak... Zulo horiek beharginek konpontzen zituzten lehen, adabakiz; amonek prakak konpontzeko egiten zuten moduan.

Bideak ondo atontzea lortu da; hala ere, autoak azkarregi dabilta eta traba berriak agertu dira. Izan ere, oinezkoentzako bideak egokitzeko, eta abiadura mugatzeko aitzakiarekin, itzelezko barrerak ipintzea bururatu zaio baten bati.

Egia esan, automobilak astirago ibiltzeko erremedio ona da, denok baitaukagu bizkorregi ibiltzeko ohitura. Baina Txorierrin ipini direnak zakarragoak dira beste herri batzuetakoen aldean: gidariok autoa ia-ia gelditu egin behar dugu, pasabide

horietatik pasatzen garen bakoitzean, astindu ederra hartzen dugu-eta.

Ba al dago pasabide horien neurriak zehazten dituen araurik? Nor da horren arduraduna: Udala ala Foru Aldundia? Herritarrok eta, batez ere, hortik pasatzen garen gidariok, bat gatoz haiek dituzten neurriekin?

Ni, behintzat, ez. Eta galderak egitea baino gehiago, erantzunak eman diezazkizadela gustatuko litzaidake; nork, ez dakit.

Pasabide horiek ondo asmatuta daude, baina hirigunetik orduko 50 kilometro egin ez ibili behar bada, zergatik gelditu egin behar da autoa, edo abiadura orduko 20 kilometro ordukoraino moteldu?

Txorierriko bideetatik ibiltzen garenok hau eskertuko genuke: pasabide horien aldatxoa luzatzea, bertatik abiadura egokian pasatzean inolako trabarik ez izateko. Eskerrik asko.

Jabier Lekerika



LARRABETZU
☎ 94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, parke teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 4°31'13" W

www.gaminiz.com



J. ELORRIAGA

Etxeko berezitasuna: bertoko okela

Iturrikoetxe, 7
Tfnos: 94 455 89 41
LARRABETZU



Miguel Angel Lekue, garrainaria
Larrañeta

656 786 744

94 455 80 20

Jaiak, Txorierrin

Uda heltzeaz dago. Eguraldi ona? Beno, par-randa egiteko gogoaz, behintzat, bai. Zamudioko Pazko jaiak eta Derioko San Isidro jaiak hasiera eman diote jai-egutegiari maiatzean. Eta ekainean San Antonio jaiak izango ditugu Goiherrin; eta Santo Tomas, Zamudion. Adi egon Txorierriko beste herrietakoei!



San Antonio, Goiherrin



Ekainaren 13an, barikua

12:30: Meza.

13:00: Ohorezko aureskua eta hamaiketa-koa, nagusientzat.

13:30: Suziriak.

23:00: Gaupasa, Trikizio taldearekin.

Ekainaren 14an, zapatua

10:00: Plater-tiroa, Akarlandan.

18:00: Lurgaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa: 640 kg; Goiherri, Areso, Mutriku, Getxo eta Gaztedi.

23:00: Kontzertuak: Averno + Etsaiak. Gau-pasa, Jo ta Anka taldearekin.

Ekainaren 15ean, domeka

12:00: Ospakizuna.

12:30: Idi-probak.

12:30- 14:30: Puzgarriak.

18:00-21:00: Puzgarriak.

18:30: Idi-probak.

21:00: Jaien amaiera.

Santo Tomas, Zamudion

Ekainaren 13an, barikua

18:00: Bolanderak.

20:00: Idi-probak.

22:00: Sahieski, hirugihar eta sardina jana.

22:30: Erromeria.

Ekainaren 14an, zapatua

16:00: XIX. Mus-Arin Txapelketa.

17:00: Umeentzako jolasak.

18:00: Tortilla lehiaketa.

21:00: Tortilla aurkezpena.

21:30: Sari banaketa.

22:00: Erromeria, Nakar taldearekin.

22:30: Sun magoaren emanaldia. Ostean, Nakar taldea.

Ekainaren 15ean, domeka

09:00: Zamudioko bost ermitetarik ibilaldia.

Paella eta sukalki txapelketak.

Pintura Lehiaketa.

13:00: Meza, Santo Tomas ermitan.

13:30: Paella eta sukalki aurkezpena.

18:00: Dantzen agerraldia, Iru-bat taldearen eskutik. Ostean, txapeketen sari banaketa.

19:00: Erromeria.

Ekainaren 16an, astelehena

12:00: Meza, hildakoen omenez.



**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

ADARVE KAFETEGIA

Especialitatea:
gosturik
plater konbinatuak
pintxoak

GIRO ONA

Solista, 2 DERIO
TEL: 94 603 95 33

Miguel Angel Peres
Aislamientos Derio

TARIFAK
PEAKURRERAKO SARAIAN
ETA APALATECIAK
-SADAI
PREFABRICATARRIAK
-ISOLAMENDU TERMIKO
ETA AKUSTIKOAK

Mungialde Etorbidea, 4
48160 DERIO (BIZKAIA)
Tel.: 670 497 928
Fax: 944 541 121

aldeko one
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87


Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urdin 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurkuntza doan

-Especialitatea:
umeak

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
ETXEREN HAZKUNTZA, BERRIKUNTZA ETA ERMANEN HAZKUNTZA
BARRUTIAK ZERBITZUAK
Sant Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 18 06
Fax: 94 454 17 10
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Abelino Arraindegia

Garbea kalea, 4 - Telefonak: 94 603 75 35 / 36
48160 DERIO

ARRATE
Edertasuna • Osasuna • Ongizatea

Arropak eta gorpuz-antolatzaileak,
Guztizkoak,
Manikura eta pedikura

Trinidad Perdomo, 6 - Arropak, Trukatuak, 48170 ZAMUDIO - Telefonoak: 94 454 15 37 - 80000 100 10 148

SANTI MAMI
ALAKATARRIA
Nerea Pedrosa Cu., 317
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

San Mami, 1 - 48170
ZAMUDIO - BIZKAIA

Telefonak: 94 454 17 17
944 541 17 15
944 541 17 15

Euskal hezkuntza sistema mintzagai izan dute Zamudion

Euskal Herriak Bere Eskola (EHBE) herri ekimena duela sei urte sortu zen, Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko mugimendua sustatzeko. Urte hauetan ikasle, irakasle, guraso eta herritarrak antolatu dituzte behar horretan, eta hainbat dinamika ere burutu dituzte: Euskal Curriculuma herriz herri eta Euskal Unibertsitatearen sozializaziorako Elkarlana, esate baterako.

EHBEk III. Nazio Mintegiak egin zituen joan den ikasturtean, eta Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko aldarrikapena bultzatu behar zela ikusi zuten. Horren ondorioz, Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldarrikapena herriz herri eta ikastetxez ikastetxe eraman dute martxotik maiatzaren bitartean. Hezkuntza sistema propioa eraikitzeke dauden oztopoak salatu, eta hezkuntza herri baten oinarritzko ardatza dela maihaigaineratu dute dinamika horren bidez.

Maiatzean hitzaldia antolatu zuten Zamudioko eskolan. Bertan 20 lagun inguru batu ziren, eta Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitze bidean egin diren hainbat hezkuntza proiektuen berri eman zuten. Euskarazko irakaskuntzaren hastapenak,



‘Eskolak euskaldundu behar du’ aldarrikapena, Euskal Curriculuma, Euskal Unibertsitatea eta Oinarritzko Hezkuntza Akordioa hizpide izan zituzten, besteak beste.

Deialdia egin die TGK-k Txorierriko gazteei

Gazteek hainbat arazori aurre egin behar diote gaur egun, eta etxebizitzarena kezagarrietarikoa da. Txorierriko Gazte Koordinadora (TGK) salatu duen moduan, banketxeek, higiezin agentziek, eraikuntza-enpresek... negozio bihurtu dute eskubidea dena, eta gazteak kale gorrian bizitzera kondentatzen dituzte. Era berean, herriak luxuzko etxez betetzen diren bitartean, ehundaka etxe hutsik daudela esan dute. “Babes ofizialeko etxebizitzak alternatibatzat ematen dizkigute, baina gazteok bete ezin ditugun baldintzak eskatzen dizkigute. Gainera, eskubidea dena zozketatu egiten da”.

TGK herri ezberdinetako gazteek osatutako koordinadora da, eta egoera horri erantzuna ematea du helburu. Horretarako, gunea eskaintzen die Txorierriko gazteei, bertan arazo honen inguruan eztabaidatu eta proposamenak egiteko. “Etxebizitza duina eskubidea dela argi izatea nahi dugu eskualdeko gazteek. Eskubide hori bermatzeko bidean lan egingo dugun konpromisua hartzen dugu”.

Ondorioz, deialdia egin diete Torierriko gazte guztiei, eurekin batera gazteen eskubideak aldarrikatzeko, eta horien alde lan egiteko. “TGK bertoko gazte guztien tresna da; bakoitzak ahal duen denbora eskainiz, eta parte hartuz aurrera egingo duen egitasmoa”. Koordinadorekin harremanetan jarri nahi duenak herrian bertan galdetu ahal du, edo mezua bidali korreoko helbide honetara: txorierriko gazte koordinadora@gmail.com.

CORMORAN
Regalos y Complementos

Sernikako arbolu, 2 * 48160 DERIO * Tel. 94 106 05 24

destra
Belleza y Opciones de Belleza

Lifting mediante radiofrecuencia
Fotodepilación
Bronceado "sunless"
Ozonoterapia
Masaje terapéutico
Decoración de uñas

Urte kalea 6, eskualdeko lorra - DERIO - Telefonoz: 94 151 33 75

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Uñazarren aurrean)

48160 DERIO (Bizkaia)
Telefonoa: 94 454 52 88

**Carnicería
Charcutería
IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TELFOA: 94 454 10 75
DERIO

Eskerrik asko
elartzeagailik

**Inmobiliaria
ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobiila: 607 32 35 53 48160 DERIO

DERIO FRUTADENDA

Sollube, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

**LEIRE BEGOÑA
HEAPAINDEGIA**

UNISEX HEAPAINDEGIA
ESTETIKA
ORDUTECIJARRAITUA
LASER-DEPIAZIOA

Mungialde etorbidea, 30 DERIO
T: 94 454 26 52

**MARMOLGINTZA
GOYO**

SUKALDE-GAINEKOAK
OBRAK ETA HILERRIAK

Ugaldeguren I ind., 18-B nabera
48160 DERIO (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

**KAFETEGIA
IMAZI
JATETXEA**

Urte kalea, 7 - Telefonoa: 94 454 29 66
DERIO - BIZKAIA

Topaguneak Erandion egingo du Graffiti Lehiaketa



Uztailaren 19an, Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa izango da Erandion, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatuta. Lehiaketak bosgarren edizioa beteko du aurten, eta nobedadeak ekarriko ditu.

Lehenengo eta behin, izen propioa estreinatuko du. Graffitiaren munduan dabilzan lagunaren proposamenak jaso ostean, ekimenari Mikel Aldekogarai gazteak proposatutako 'Spraikadak' izena jartzea erabaki dute arduradunek. Irudi grafiko bateratua ere izango du aurtengo lehiaketak. Hori Garikoitz Arregik asmatu du. Garikoitzek lehiaketa irabazi zuen iaz.

Euskal Herriko Graffiti Lehiaketan parte hartu nahi dutenek horman egiteko asmoa duten ziriborroa agindu behar dute

Topagunera ekainaren 27a baino lehen. Lan guztien artean, hamar onenak aukeratu dituzte, eta horiek izango dira Erandioko hormetan pintatuko direnak. Parte-hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte: 16 urtetik gorako gaztea izatea, graffitiko testuak euskaraz egitea, ziriborroa epea amaitu aurretik bidaltzea eta finalista suertatuz gero, graffiti antolakuntzak emandako sprayekin egitea. Estiloa, teknika eta gaia libreak dira. Antolatzailerak hiru sari emango dituzte: 1.500, 1.200 eta 900 euro.

Informazio gehiago:
www.topagunea.org/graffiti

Gazte txartelak Gazteentzako Argibide Bulegoan daude eskuragarri

Ziur asko, zuetako asko hasita egongo zarete udako oporrak prestatzen, edo, bestela, laster hastekoak izango zarete. Txorierriko Gazteentzako Argibide Bulegoak erraztasunak eman nahi ditu prestatze lanok egiteko, eta horretarako gazte txartelak jarri ditu zuen eskura. Abantaila asko dituzten txartel horiek hauek dira:

Nazioarteko ikasle txartela: ISIC txartela munduko edozein herrialdetan erabil daiteke eta baldintza bat baino ez da bete behar haren abantailaz gozatzeko: ikaslea izatea.

Irakasle txartela: ITIC txartela ikastetxe ofizialean aritzen diren irakasleek eskura dezakete. Txartel hori daukanak beharpenak izan ditzake garraio, ostatu, museo, antzoki eta beste toki askotan sartzeko sarreretan.

Nazioarteko gazte txartela: Go-25 txartela 26 urtetik beherako lagunentzat da eta beharpenak eta abantailak eskaintzen ditu munduko edozein tokitan.

Aterpekide txartela: txartel honek ez du beharpenik eskaintzen, baina eramaileak abantailak lor ditzake planeta osoko aterpe-txeetan.

Txartelei buruzko informazioa Gazteentzako Argibide Bulegoan eskura dezakezue: Behargintza, Berreteaga industrialdea, 13 A. Era berean, 944536798-944536370 telefono zenbakietara dei dezakezue, edo mezua bialdu oij@e-txorierrri.com helbidera.



Ganix
ORNETAKOAK - ORNATZENAK

Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(surrea Goiko Kuletik)
Tfnos.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkaja)

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakartzen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefonoa: 941 513 70

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK

Lasai

Luis Mª Anasola
Osteopata

DERIO: 20044 20044 - 20044 20044
BILBAO: 48944 48944 - 48944 48944
JELKOTIA: 48944 48944 - 48944 48944

1. floor - 48100 DERIO
Tel: 94 494 10 29 - 94 494 10 29
email: osteopatielasai@euskalnet.net

cianoplan s.a.
Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio
Telefonoa: 94 431 71 37
<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.



Txuma Murugarren

Kontzertu saila izango da ekainean Larrabetzun

Arrekikili Larrabetzuko euskara elkarteak "Gureak kantetan" kontzertu saila antolatu du Topagunea euskara elkartearen federazioarekin batera. Sail horretako musika emanaldi guztiak ekainean izango dira.

Ekainaren 6an, Pettik kantatuko du gaueko 10etatik aurrera Anguleri kultura etxearen aurreko anfiteatroan. Jone abeslari gaztearen ekitaldia ekainaren 15ean izango da, iluntzeko 8etan, Hori Bai gaztetxean. Maixak ekainaren 20an emango du kontzertua gaueko 10etik aurrera Anguleriko anfiteatroan. Txuma Murugarrenek amaiera emango dio kontzertu sailari ekainaren 26an, iluntzeko 8etan, Hori Bai gaztetxean.

Aipatu dugun moduan, Petti eta Maixaren kontzertuak Kultura Etxearen aurreko anfiteatroan egitekoak dira, baina euria bada, eraikinaren barruan egingo direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Literaturaz berbetan

Beste alde batetik, hitzaldi bi antolatu ditu Arrekikilik "Literaturaz berbetan" jardueraren barruan. Iñigo Aranbarrik *Zulo bat uretan* eleberria aurkeztuko du maiatzaren 28an, iluntzeko 8etan, Angulerin. Castillo Suarezrek *Souvenir* poema liburuari buruzko berbaldia egingo du ekainaren 19an, arrastiko 8etan; azken hitzaldi hori ere Angulerin izango da.

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
San Marín auzoa, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 50 50
Faxa: (94) 452 11 46



**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**



Bizkaiko Txakolina
Txakolinaren Muzika eta Antzerkia



Geltokiak auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa Ikastaroak
Aisialdiarako landak - Apepilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalaren heziketa

Telefona:
IBON - 659 90 75 88



GAZTELEKU TABERNA

LARRABETZU

Andra Mari, 6 - Tel 94 455 88 97

**RESTAURANTE
JATETXE
AYRREGOITI**

Tel.: Fax: 94 455 24 40 / LAUROETA ETORRIDA, 77 / 48180 UROLA-BARNA
e-mail: ayrregoititerra.az // www.restauranteyrregoititerra.com

KIM7

Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Geltokiak 99 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48096 LEZAMA (BIZKAI)A

**UMEENTZAKO
MODA**

Tximeleta

Gernikako Arbela, 8
Telefona: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERRIO
Bizkaia

**Oguiza
Hortz Klinika**

Anguleri onargarria. 1 • 48185 LARRABETZU • Telefonoa: 94 455 68 90

URAS

Estetika eta masajea

Aita Patxi Ugaldé, 14 beheko
Tel.: 94 455 72 01 - 48185 LARRABETZU (Bizkaia)

ZAINDUZ

ORRIONA ALBILLOA

-Odontologia orokorra
-Ortodontologia
(umeak eta helduek)
-Periodontia
-Harkonde faktoreen
aberraketa den planeta
-Hortz estetikoa
(zuriketa, piercing...)
-Hortz jantziak eta berriketa

**Jesus Enrique
Lopez Hildaigo**
Odontologo

Txakolinaren 7. bulego (Lezama) (Bizkaia)
Tlf./Fax: 94 454 01 01 - e-mail: cluzainduz@euskalnet.net - 48185 DERRIO (Bizkaia)

18:00: *Den dena niretzat*, Behibi's taldearen eskutik, Kultura Aretoan. Familia osoaretzako antzerkia.


S.A.T. LEGY
ESTRUTURA, OBRAS E REFORMAS

LEZAMA
Gutiérrez Auzoa, 36
48196 LEZAMA - Bizkaia
Telf. 94 455 61 98
Fax. 94 455 60 12

ZUTARRI SL

HARGINTZA, OROKORREAN.

ETXETAKO AURREALDEAREN HARRI LANTZUEN ERROKORREAN DUN
BERROTATUTIA, ITSU ERKURU, HOLZURU,
URTZEZ HARRIZ APURGARRIEN PARRAKA, ETB...

Garailetoa 125 ziklo erpin. 48796-LEXAMA - BILBAO
TEL. 652.724.182 - FAX 644.554.27

On egin konfeta

Hastatzen du zure bizitza zuretzat
plazat. Baita zuretzat = zuretzat. Baita zuretzat = zuretzat.
zuretzat zuretzat

et zuretzat zuretzat zuretzat

94 455 63 94

LOTERIA LEZAMA

BONILOTOA GARUNITAKO ETA IRERIGITAKO
 LOTERIA PRIMITIBOA LOTERIEN ERRESERBAK

1-X-2

SARITZARRA ZERBITZUA, ENPRENTATZAT,
 EUROMILLIOAK TIAHRENTZAT, ETAB.

AGURTIALDE: 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAYA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 81

LEZAMA

- Carrocería
- Mecánica
- Electricidad
- Navalística

Pre - J.T.V.

*Reparación y mantenimiento
vehículos y maquinaria agrícola*



MOTOR

Polígono Transmexcalco s/n, Barrio P. P.
Toluca 6, plaza beta, TOLUCA,
GUATEMALA
Teléfono 96 671141 y
Fax 96 671141

**Desarrollamos nuestros
Proyectos en el computador**

Dertech Accesorios SLL, 2007ko Lur Barriak sariaren irabazlea

“%80ko presentzia dugu estatuko merkatuan”

Koldo Piko, Violeta Fraguas eta Rosa Fraguasi izugarri gustatzen zaie bideo jokoen mundua. Sektore honetako enpresetan lan egin ondoren, euren bideari ekitea erabaki eta Dertech Accesorios SLL proiektua jarri dute abian Derion.



Zertan zabiltzate Dertech Accesorios-en?
Gure markako osagarriak merkaturatzen ditugu bideo kontsola eta bideo jokoetarako. Hemen diseinatu eta Txinan fabrikatzen ditugu. Beste enpresa batzuek han egiten dena erosten dute; hori dugu bereizgarri.

Zein eratako laguntza topatu zenuten Behargintza Txorierrin?

Proiektuarekin hasi ginenean, Behargintzara joan ginen negozio ideari buruzko txostena eskuan. Zer egin eta zer ez azaldu ziguten han, eta ASLEra bideratu gintuzten. Enpresa eratzekeo laguntza handia izan genuen ASLEn.

Zailtasunik izan duzue?

Banketxe nagusi biko enpresak eratzekeo sailek atzera bota zuten proiektua, bideragarritzat jotzen ez zutelako. Ezezko horiek jaso arren, banketxe gehiagotara jo genuen. Derioko banketxe batzuek sinistu egin zuten proiektuan, eta enpresa abian jartzekeo behar ziren tresnak eman zizkiguten. Aldez aurretik bagenituen dirua eta abala. Zer deritzozue Behargintzaren jarduerari?

Ona. Ematen dituzten orientabideak eta laguntzak oso garrantzitsuak dira, jarduerari bati ekiten diozunean ez duzulako jakiten nora jo.

Zein da enpresaren gaur egungo egoera,

eta zein aukera du etorkizunerako?

Hastapenak neketsuak izan ziren baina lehenengo urtean uste baino gehiago fakturatu dugu. Estatuko merkatuan %80ko presentzia dugu, eta gure produktuak toki hauetan daude salgai: El Corte Inglés, Fnac, Carrefour, Eroski, PC City...

Frantzia eta Erresuma Batuan ere hasi nahi dugu saltzen aurtan, eta gure Slippers poltsa hil honetan egongo da Portugaleko dendetan.

Dertech Accesorios SLL
Idarsolo 5 – 8. pabiloia
48160 DERIO (Bizkaia)
Tel.: 94 454 43 54
Faxa: 94 454 50 56
www.dertechacc.com



2008ko Lur Barriak sariak

Enpresa-lehiaketaren seigarren deialdia

● Betekizunak:

–Enpresa eratu berriak 2007ko ekainaren 15etik 2008ko uztailaren 14ra bitartean egon beharko du Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda.

–Lehiaketa Txorierra, Bermeo, Erandio, Getxo, Leioa, Mungia eta Uribe Kostako Behargintza zentroek antolatzen dute, eta gutxienez enpresa sustatzaileetako batek egon beharko du udalerrri horietako batean erroldatuta.

–Enpresa eratu berriak gorago aipatu diren Behargintza zentroetako baten tutoretza-zerbitzua jaso beharko du.

● Sariak:

–Lehenengo saria: 6.000 euro.
–Eskualdeko zazpi sari: 2.500 euro.

● Aintzat hartuko da:

–Izaera berritzailea
–Kanpoko proiektzioa
–Zenbat lanpostu sortu den
–Inbertsio-bolumena
–Kokalekua
–Enpresaren erantzukizun soziala

● Izena emateko epea:

–Uztailaren 15a (12:00ak arte).

● Dokumentazioa non aurkeztu:

–Txorierriko Behargintza edo lehiaketa antolatzen duten gainerako agentzietan: Bermeo, Erandio, Getxo, Leioa, Mungia eta Uribe Kosta. Ekimenak Bizkaiko Foru Aldundia-ren, Eudelen eta BBK Gaztelanbidean Fundazioaren laguntza du.



TXERRIEKO UDAK
EUSKALTEGIA

Herriko plaza, 3 48100 Derio
Tel.: 944540082
euskaltegia.txerri@euzkadi.net

Udako ikastaro trinkoak

Matrikula zabalik
ekainaren 9tik 25era

ALTZARIEN
ZAHARBERRITZEA

Antzinako altzariak
Azilar Legarreta

1. Errekalderri 13, 1. errekalderri
LOIU 48180
Tel: 944 521 544

R P M
MAYORISTAS INFORMATICOS

EMPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN, MANTENIMENDUA
SERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pina 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

Iñaki Valladares
Osteopata eta masajista
R.O.P. -ko kidea

Quiro-Pharma
Osteopatia y Masaje

Milano bidea 7 behean
48150 SIONZKA

94 403 99 48

Pirritx eta Porrotx, pailazoak

“Oso maitatuta senti

Zamudioko kiroldegian hil honetan eman duten ikuskizunerako sarrerak salgai jarri, eta egun berean, oso ordu gutxian, saldu ziren guztiak. Pirritx eta Porrotx Euskal Herriko umeen pailazorik kutunenak dira eta horretaz jabetzeko, euren ikuskizunetara hurbildu baino ez dugu egin behar. Jose Mari Agirretxek ‘Porrotx’ azaldu dizkigu gakoak.

Zer duzue zuek umeekin?

Hogeitaz hamar urte daramatzagu lanean, eta esango nuke gure formula magikoa hau dela: euskara, alaitasuna, baloreak eta horien nahastea osotasunez eta maitasunez egitea. Gure saioetan eman egiten dugu, eta saioa bukatu ostean ere musuak ematen dira; txokolatezkoak, marrubizkoak... Gauza politak esaten dizkiegu umei eta gurasoei. Nori ez zaio hori gustatzen? Eman eta jasotzean dago koska.

Gaur egungo hainbat gai lantzen dituzue zuen ikuskizunetan. Umeak ilusioan eta alaitasunean heztearazgarriagoa da, ezta?

Dudarik ez; eta hala bizi nahi dugu, gainera. Gauza asko irakurtzen dugu egunero egunkarian, edo irratitik entzuten dugu, eta horiek guztiak lan daitezke. Baina guk abantaila dugu: koloreetako begiak ditugunez albisteak eta bizi ditugun egoerak gure koloreetako filtroetatik pasatzen dira. Ondorioz, mezu itxaropentsua eta alaia ateratzen dugu beti. Keinua egiten diogu etorkizunari eta, nire ustez, beharrezkotzat dugu hori. Bizitzeko ilusioa inportantea da. Gure leloa hau da: bihotza, burua eta eskuak; hots, sentitu, pentsatu eta ekin. Elkarlana ere funsezkoa dugu: talde asko daude Euskal Herrian gure ibilbidean lagundu egin digutenak. Lagunak ditugu guztiak. Minbizia izpide duzue ‘Eskerrik asko’ saioan. Zaila da azaltzea zer den gaixotasuna ume bati?

Duela zazpi urte hasi ginen lanean Aspanovas elkartearekin. Bisitak egiten ditugu ospitaletan eta harremana landu dugu minbizia duten hainbat umerekin. Haiengandik indarra jaso dugu, begietako disdira, bizitzeko grina, ilusioa... Indar horiek batu, eta herriz herri gure hospital txikia eramanez, besteei erakusteko aukera zegoela pentsatu genuen. Helduok beldurrak ditugu, ezintasunak, topikoak... eta hitz egitea kostatzen zaiguna izkutatu edo mozorrotzeko joera

dugu. Haurrak, berriz, naturalagoak dira. Eta gaiak naturaltasunez tratatuz gero, hobeto ulertzeaz gainera, errezagoa da horiei aurre egitea. Gaixotasuna gure artean dago; guztiok gaixotzen gara inoiz. Minbizia gaixotasun larria da, baina gure ikuskizunean ez dugu gaixorik aurkezten; gaixotasuna duen pirata bat baizik. Eta pirata hori bizitzeko gogoarekin altxatzen da ohetik goizero.

Zein izan da Pirritx eta Porrotx pailazoen bilakaera? Zer ekarri dio taldeari Takolok alde egiteak?

Taldea sortu zenean, euskalgintzan aritzen ginen eta euskara kalera ateratzea genuen helburu. Hau da, eskolan ikasten zebiltzana umeek era dibertigarri batean praktikatu ahal izatea. Saio batzuk antolatzen genituen herrian, Lasarte-Orian, baina gauza puntual bat izango zena handitzen hasi zen eta Euskal Herriko beste herri batzuetara zabadu zen. Gogo hori zaletasun bihurtu zen; eta zaletasuna, ogibide. Euskarari eta alaitasunari baloreak lantzeko gogo pixkanaka-pixkanaka gehituz joan ginen. Takolo sorre-



tzen gara”

ratik izan dugun laguna da, eta beti izango da gurekin.

Hasiera batean ohiko zirkoaren saioak egiten genituen, beste batzuen kantzak abesten genituen... Eta denboraren poderioz lana sakonduz joan gara: ikastaroak egin ditugu, gidoiak landu, gure abestiak sortu... Publikoari helarazi nahi dizkiogun mezuak ere gero eta sakonagoak dira. Lehen esan moduan, alaitasuna oso bide ona da horretarako.

Elkarlana taldearen ezaugarriak nagusienetarikoa duzue. Hona hemen umeei helarazten diezuen baloreetarikoa bat...

Bai, Pirritx eta Porrotx pailazoen atzean jende asko dago: lankideak, Marimototx, Xabier Zabala musikaria, Julen Tokero diseinatzailea, Mitxel Murua ipuin idazlea... Lagun asko dabilta gurekin elkarlanean.

Euskal hainbat talde, musikari, idazlek... moduan zuek ere zentsura pairatu izan duzue... Dena nahasten dugu gaur egun.

Euskal Herria herri bat da, baina ez zaio izaera hori onartzen. Orduan, hor gabiltza; nahi dugu, baina ezin dugu. Bizi dugun egoera tristea da eta sufrimendua ere bada-



kar. Testuinguru horretan kokatzen dut nik zentsura. Talde askok zentsura pairatu zuten Francoren garaian, eta beste askok gaur egun ere jasaten dute. Guztiok topatu nahi diogu konponbidea egoerari; hala ere, izan beharko lukeena baino zailagoa dela ematen du praktikan.

Baina herriak aurrera egin behar du, alaitasuna behar du, eta, alde horretatik, gu oso gustura bizi gara egiten dugun lanarekin. Aberasgarria da bai guretzat pertsonalki, bai denontzat. Zeinbat lekutan zentsuratu gintuztenean oso txarto pasatu genuen. Egoera horren aurrean egiten dakiguna eskaintzen jarraitzea erabaki genuen. Eta denborak gure lekuan jarri gaituela uste dut. Oso pozik gaude horregatik. Oso maitatuta sentitzen gara gaur egun.

Zeintzuk dira zuen planak etorkizunari begira?

Bide honetatik jarraitu nahi dugu jubilat

“Ez dugu jubilatzekeo asmorik; sudur gorria odolean daramagu, eta bihotzean”

arte. Beno, egia esan, ez dugu jubilatzekeo asmorik. Sudur gorria odolean daramagu, eta bihotzean. Azken urte bietan Marimototx izan dugu ondoan, eta umeeke primeran hartu dutela ikusita, etorkizunean ere jarraituko du gurekin. Ondorioz, taldearen izena handitzea ere baliteke: “Pirritx, Porrotx eta Marimototx”. Beste alde batetik, ikuskizuna eta abesti berriak gabiltza prestatzen datorren urterako. Ideia batzuk ditugu liburugitzan eta musika arloan... Poliki-poliki joango gara lantzen.

“Gure formula magikoa hau da: euskara, alaitasuna, baloreak eta horien nahastea osotasunez eta maitasunez egitea”

XAKER
kirol zerbitzuak S.L.

kirol instalazioen kudeaketa: uztapena, garbiketa eta mantentzeak –
kirol erakusketak
guri mailako pilotak taldeen entrenamenduak –
entrenamenduak eta edukiak kirolariak eta kongresuak –
kirol alkarteen kudeaketa: kluba, federazioak
eskolaz kanpoko jarduerak
udalekuak –

Herrera 2017, 4
48195 Larrabetzu BIZKAIA
944 558 216 / 944 558 143
602 710 632
fax: 944 558 216
www.xakerkirola.com

DERIOZTARRAK 6 KONTINENTEETAN
ekainak **DERIO**

2 OZEANIA Iratxe Garai: “Papua Ginea Berria”
20:00etan TxepetzaAFK euskaltegian

3 AFRIKA Iñigo Urrutia: “Mozambika”
20:00etan GANtxan-n

4 AMERIKA Aner Mentxaka: “Maputxesk, jatorrizko herri bat”
20:00etan Udal Euskaltegian

5 ASIA Cristina Gago eta Jose Carlos Lores: “Birmania”
20:00etan Trippyn

6 ostirala **JON MAIA:**
“Apaizac obeto”
20:00etan Derioko Gurea Aretoan

“Alde handia dago oraindik kirolean gizonen eta emakumeen artean”



Emakume aktiboa dela esan dezakegu. Karrera amaitu zenetik hainbat beharretan ibili da 26 urteko lezamar hau: ETBn, Europa Press-en eta Bilbao Basket taldearen bulegoan, adibidez. Gaur egun ikuskizunak antolatzen dituen enpresa batean egiten du lan, eta artikulak ere idazten ditu Deia egunkarirako. Horrezaz gainera, badu astia gehien gustatzen zaion kirolean aritzeko: areto-futbolearen, hain zuzen ere.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Lekua topatzen zabilta kazetaritzan; zaila da?

Nire esperientzia kontuan hartuta, bai. Oposaketak egin eta gainditzeko badituzu, edo ezagunen bat baduzu... ondo; osterantzean, eskaintzen zaizun gauza bakarra ordezkioak egitea da. Lanak ez du jarraipenik; beno, nire kasuan, behintzat.

ETBn kirol arloan aritu zara, eta Deiarako, nahiz eta beste gai batzuk ere landu, kirolarekin zerikusia duten Txorierriko gaiak jorratzen dituzu.

Kirola maite dut; areto-futbola, batez ere. Txikia nintzela amak hainbat kirolean apuntatu ninduen areto-futbolearen ez aritzeko. Badakizue, mutilen kontua zen ustea zegoen lehen. Baina nik argi nuen hasiera-hasieratik. Institutuko taldean aritu naiz, eta Zamudioko Iraultzan nago gaur egun. Futbolearen ere ahalegindu naiz, baina ez zait gustatu. Areto-futbola askoz dinamikoagoa da, nire ustez.

Zelako denboraldia egin duzue?

Liga amaitu da, eta orain Kopa jokatzen gabilta. Egia esan, partida bakarra irabazi dugu. Taldekide gehienek lan egiten dugu; bakoitzak bere bizitza du, eta oso zaila da gauza biak uztartzea. Kostatzen zaigu guztiok entrenamenduetan batzea. Ni lesionatuta nago orain.

Harreman estua duzu bai futbolarekin, bai saski-baloiarekin. Lehenengoa zale gehien batzen duena da; baina bigarrenaren inguruan mugimendu itzela sortu da...

Beti egon da saski-baloirako zaletasuna; hala ere, taldeak desagertu egin ziren, ACBn jokatzeko mailarik ez zutelako; edo diru falta zela-eta, klubak desagertu zirelako. Basket Bilbao Berri elkarteak duela zazpi urte sortu zen, eta lehenengo urtee-

“*Momentu oro kazetari ibiltzea gustatuko litzaidake; eta, posible bada, kirol arloan*”

tan mailari eustea helbururik nagusia bazuten ere, erronka berriei heldu diete eta Play Off-etara ailegatzea lortu dute. Horrek ilusioa zabaldu du zaleen artean: lehen 2.000 abonatu ziren; 5.000, orain.

Emakumezkoen kirola, gizonezkoen aldean.

Laguntza jaso, handik edo hemendik jasotzen dugu, baina ez ditugu mutilek dituz-

ten erraztasunak, edo laguntza. Eta zaleen aldetik? Ba, lagun gutxi etortzen dira gure partidetara: familia eta lagunak, besterik ez. Eta gure partidak eta bertoko mutilen taldeenak egun berean badira, edo kanpoan jokatzen badugu, askoz lagun gutxiago. Batzuetan partiden publizitate handiagoa egin beharko genuela pentsatzen dut... Dena dela, tenisa, volleyballa, edo abarrek izan ezik, emakumezkoen kirolak ez du grina handirik sortzen...

Baina pixkanaka-pixkanaka emakumea lekua hartzen dabil tradizionalki gizonen egin dituzten kirolean...

Eta maila handia dugula erakutsi dugu, gainera. Adibidez, gero eta gehiago gara futbolearen edo saski-balioan aritzen garenak. Bide horretan, Athleticek neskek atea zabaldu digute gainontzekoei. Eskerrak!

Zein da zure gaur egungo lana?

Ikuskizunak antolatzen ditugu: kontzertuak, umeentzako ekitaldiak, umore-saioak... Ikuskizun batzuk kontratatzen ditugu, eta beste batzuk guk geuk ekoizten ditugu. Gustatzen zait lana, munduko edozein txokotako lagunekin harremanetan egoteko aukera ematen didalako. Interesgarria da. Hala ere, benetan gustatuko litzaidakeena momentu oro kazetari ibiltzea da. Eta, posible bada, kirol arloan.

sariak barra-barra

banatu ditugu aikor!lagunen artean

BBK Live jaialdirako sarrerak:
Igor Urrutikoetxea

Bilbao Basket-Barcelona partidarako sarrerak:
Amaia Rementeria

Pilota jaialdirako sarrerak:
Ziortza Sanz

Masajea:
Nerea Elexpuru

Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizunerako sarrerak:
Aitor Badaia
Anot Lasa
Alberto García
Joseba Etxebarria

Gainbehera dator dena liburua:
Irene Dañobeitia

Bizkaiko trikitixa diskoa:
Andoni Lekunbrerri





Testua eta argazkiak: Jon Goikouria

Carlos Sainzek sekula eginiko rallya

“Argazki lehiaketa da, zeinetan parte hartzaileak epemuga baitauka irudi kopuru zehatz bat egiteko”. Horrela definitu du argazki rallya Bego Olabarrieta Sondika-Goiri argazkilaritza elkarteko diruzainak. Ohikoa den bezala, apirileko azken igandea eguzkitsu itzartu zen. Ekitaldian izena emateko epea zabaldu eta, astiro-astiro, txorierriarrak ez ezik Barakaldo, Leioa, Astrubudua eta Bilboko lagunak ere hasi ziren hurbiltzen Sondikako Artebe udal kiroldegira. Argazkilaria bakoitzak kiroldegian bertan pintxo bat hartzeko balea eskuratu zuen.

Gaia ‘Txorierri’ zen; hala ere, bailara goitik behera miatu zuten argazkilariek argazki perfektuaren bila. Lehiaketarekiko iritzia ona izan da orokorrean, antolatzaileen hitzetan. “Aurtengo edizioan 33 pertsonak hartu dute parte; iaz baino zortzi lagun gehiago. Baina ez da haurrik egon”, azaldu digu Olabarrietak.

Edizioek aurrera egiten dute, eta emakumezkoen parte-hartzea murriztua izaten jarraitzen du. Aurten, adibidez, 11 neska baino ez dira ibili rallyan. Beste alde batetik, teknologia digitalak analogikoa alboratu du. “Argazki digitalak egiteko

Autoen munduarekin zerikusirik izan ez arren, hamabost etapa daramatza Sondika-Goiri argazkilaritza elkarteak kliskagailuei eragiten.



aukera duela urte bi eman genuen lehenengo aldiz. Parte-hartzaileen erdiak teknologia analogikoaren aldeko apustua egin zuen; eta beste erdiak, digitalaren alde. Digitala nagusitzen hasi zen hurrengo urtean, eta aurten hiru lagunek baino ez dute erabili kamera analogikoa”. Jai-tsiera horren arrazoi nagusia material-falta da, argazki pelikulen txirrikak bezalako teknologia analogikorako materialak topatzea gero eta zailagoa baita. “Egunak zenbatuta ditu teknologia analogikoa. Edizio bi baino gehiago ez irautea espero da”, aipatu du Juanjo Díez rallyko argazkiak errebelatzeaz arduratzen den argazkilaria.

Sarien banaketa maiatzaren 18an egin zuten Sondikako Kultura Etxean. Argazki Rallyaren gaineko laburmetrai bat proiektatu zen bertan eta, horren ostean, sariak banatu zituzten. Hiru sari eman zituzten guztira: argazki bildumarik onenari (Mikel Martín, 250 euro); argazkirik onenari (Víctor González, 150 euro) eta argazkirik originalenari (Julia Muñoz, 150 euro). Ekitaldia bukatu eta gero, hamaiketako egin eta aukera paregabea izan zuten argazkilariek esperientziak elkartrukatzeko.

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 456 60 16
e-mail: lezama@foc.org
Iturzikideak: 144

**Pentsu
naturalak**

Bertoko sukaldeak, kalitate uneko sukaldeak.

Kitchen sukaldeak

AGOSTO 1. 1998
KITCHEN SOKALDEAK
BERRIEN 1. 1998
KITCHEN SOKALDEAK
BERRIEN 1. 1998

Maila handiko rallya izan da Deriokoa


DAT Derioko elkarteak ere argazki rallya antolatu zuen maiatzaren 17an. Rallya zortzigarren aldiz egin da aurten, eta 25 lagunek hartu dute parte. Haietako lau umeak izan dira.

Aurreko aldietan baino parte-hartzaile gutxiago izan dira rallyan. "Hala ere, kalitate handiko lanak aurkeztu dira, eta mailarik altuena izan den urtea izan da", esan digu Jose Luis Sodeto taldearen arduradunak. "Gainera, aurtengoak gai errazak izan ez direla hartu behar da kontuan". Antolatzaileek rallyan bertan jakinarazi zieten argazkilariei zein ziren jorratu beharreko gaiak: landaretza eta fatxadak. Parte-hartzaileek gai bat aukeratu behar izan zuten, eta hari buruzko erreportajea egin. Lan guztiak euskarri digitalean aurkeztu behar ziren; izan ere, Sondikako argazki taldekoek duten arazo berarekin egin dute topo Derioko elkartearekin. "Gero eta argazkigintza-labore gutxiago dago, eta arazoak izaten ditugu argazkiak errebelatzeko. Argazki kamera analogikoa erekin egindako lanak ez onartzea eraba-

ki dugu aurten".

Sari banaketa ekainaren 7an egingo dute Gurea Aretoan, eguerdiko 12:30ean. Hiru sari emango dira: 150 euro eta diploma, argazki bildumarik onenari;

100 euro eta diploma, argazkirik onenari; eta 75 euro eta diploma, argazkirik originalenari. Azken sari hori Derioko Dendarien Elkartearen kide diren dendetan erosteko txartela izango da.





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizarean atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

Uztailak 10, eguena, 22:00etan

"100 % FURBOL"
Sinverso Teatro taldearena
(gazte eta helduentzako komedia)

< 26 urte: doan (aurretik eskatuz gero)
+ 26 urte: 5 €



BFA DFB
BFA DFB
BFA DFB

KARTAKO EKIMAK

venta de entradas

bbk nahi onartzen du
kuntzaintza eta
baldintzak 944 210 210

on line laguntza da
autoserbizio da bbk
944 210 210

bbk

txarteldugian
ordtu bat lehenago

Uztailak 22, martitzena, 12:30etan





MARRATXO
Peter Roberts mimoarena
(haurrentzat)

- 12 urte: 3 €
+ 12 urte: 5 €

Ekainak 25, eguaztena, 12:30etan

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON JUNIOR
(haurrentzat)

- 12 urte: 3 €
+ 12 urte: 5 €



“Aldaketa beheko klaseetatik

Zergatik lagundian sartu?

Bokazioarengatik; gizon eta emakumeen askapena lortzen laguntzeko asmoz. Mese-detakoaren Lagundian sartu nintzen, misiolari ibiltzeko aukera ematen zidatelako. Afrikara joan nahi nuen, baina frantsesa jakitea beharrezkoa zen, eta ez nekien. Oso mugimendu handia sortu zen euskal elizbarrutiko misioen inguruan, eta lehenengo aldiz moja bik, apaiz bik eta sekular bik osatutako taldea Ekuadorrera joan ginen misiolari 1968. urtean.

Esperientzia guztiz berria izan zen hori.

Arenillas eta Huaquillas herrietara joan ginen. Landako jendearekin bizi ginen; euren bizi-egoera ezagutu genuen. 1973. urtean Euskal Herrira bueltatu nintzen, eta erizaintza ikasi nuen. Obstetrizia hartu nuen espezializatetzat. Baina hona etorri baino lehen, baterako misioa egin genuen Rio-bambako misiolarien taldearekin. Erabiltzen hasi ginen metodoa hau da: ikusi, aztertu eta neurriak hartu. Lan pastoralera erabat aldatu genuen eta oinarrizko eliza-komunitateak eratzen hasi ginen.

Zein da horien helburua?

Guk Askapenaren Teologiarekin egiten dugu bat. Txiroen egoera aldatzea dugu helburu, baina aldaketa horren alde eurek egin behar dutela uste dugu. Hau da, dituzten beharrezanik nagusienak aztertu, eta horiek betetzeko konponbideak topa ditzatela: ura, elektrizitatea, errepideak, hezkuntza... Eta guk laguntza ematen diegu horretarako. Izan ere, Jainkoak gizona eta emakumea maite ditu, eta horiek

“Gizonak eta emakumeak bizitza izatea nahi du Jainkoak; baina bizitza oparoa”

“Pertsonak hezi nahi ditugu, eta beste mentalitate bat buruan sartzen saiatzen gara”

biek bizitza izatea nahi du; baina bizitza oparoa. Bide luzea dugu oraindik hori lortzeko.

Ikasketak egin ostean, Ekuadorrera itzuli zinen 1977. urtean.

Manabira joan nintzen, eta bertan oraintsu aipatutako ildotik jarraitu nuen lanean. Manabin 1983. urtera arte izan nintzen. Urte horretan Perura eraman ninduten, Huandozara. Oihan ondoan dagoen herrixka da, eta hara ailegatu ginenean ez zegoen edateko urik, ezta elektrizitaterik ere. Oso komunikazio txarrak zituen, eta bidaiak zaldiz egin behar genituen, edo oso txalupa txikietan... Eurria ari zuenean, erabat isolaturik gelditzen ginen... Anbulatorioa genuen eta moja batzuek han egiten genuen lan; beste batzuek, eskolan. Herrixketara



ere joaten ginen umeak txertatzera, eta abar. Denetarik egin behar genuen, medikua ez baitzen zonalde horretara ailegatzuten. Laguntza behar genuen, eta bertako batzuk osasun kontuetan hasi ginen prestatzen. Horrela sortu ziren osasun-sustatzaileak.

Jaenera (Peru) 1.992. urtean ailegatu zinen.

San Frantzisko Xabierkoaren bikariotza hartzen duen osasun-programa koordina-



Donajabekasuna lortu nahi duzu eta aukerak zabaltzen? Pasa eta eragari gure heziketa tekniko prestakuntza praktikoa, heziketa tekniko eta eragari. Lan munduan sartuko zuretzat lagunduko.

35 urte bete arte itxarongo duzu independente izateko?

PROFESIONALIZAZIORANTZ BIDE AZKARRA

TXORIERRI
POLITEKNIKA IKASTETXEA
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lugar de Formación de la Juventud de la zona de Txorierri
Udako gaitasunak, 1. | Tel: 94 403 40 50 | info@txorierri.net
04110 - GORRIO | Fax: 94 403 40 51 | www.txorierri.net

HEZIKETA ZIKLOAK

KIMIKA Ingurumen-Heziketa <i>Gai malla (1.400 ordu)</i>	FABRIKAZIO MEKANIKOA • Mekanizazioa <i>Enfi malla (2.000 ordu)</i> • Proiektu mekanikoen garapena <i>Gai malla (2.000 ordu)</i> • Proiektu mekanikoen garapena <i>Gai malla (2.000 ordu)</i>
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA Ereduazio eta kontrol automatikoen sistemak <i>Gai malla (2.000 ordu)</i> Taldeko komunikazio eta informazio sistemak <i>Gai malla (2.000 ordu)</i>	MERKATARITZA ETA MARKETINA • Merkataritza eta marketin gaitasunak <i>Gai malla (1.400 ordu)</i>

BATXILLERGO TEKNIKO ETA ZIENTIFIKOA



etorri behar da”



Familia Larrabetzuko du, baina gerrako gorabeherak zirela-eta, Zamudion jaio zen 1937. urtean. Josune Kareaga 17 urte zituela sartu zen Berrizeko Mesedetakoaren Lagundian. Hegoamerikan 40 urtean dabil misiolari, eta duela gutxi Txorierrira bueltatu da familia bisitatzera. Berton izango da ekainera arte.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

tzera bidali ninduten. Bikarriotza hiru probintziak osatzen dute, eta hainbat arlo jorratu ditugu han: hezkuntza, giza eskubi-deak... Irratia ere badago: Radio Marañon. Oso irratia inportantea da, egunerokotasunean behar dituzten gauzen berri ematen baitie. Horrezaz gainera, herri-mugimenduen alde egiten duen irratia da, injustiziak-eta salatzen dituen.

Elkarteko botikinak sustatu zenituzten; oso aurrerapauso inportantea izan da

hori.

Medikuak ez ditu herrixka guztiak bisitatzeten; batzuk oihanean bertan daude eta eskalatu egin behar da hara joateko. Jaenen, adibidez, ospitalea dago, baina egin behar dizkizuten proba guztiak ordaindu behar dituzu; baita janaria ere. Eta ondorioz, jende askok ezin du osasun zerbitzua eskuratu. Horregatik erabaki genuen elkarteko botikinak martxan jartzea, eta osasun-sustatzaileak prestatzea.

Botikinak medikamentu generikoek eta ordezeko medikuntzako produktuek osatzen dute. Osasun-sustatzaileek bi urteko prestakuntza hartzen dute, eta, horren ondoren, praktikak egiten dituzte ospitalean. Osasun Ministerioak diploma ematen die. Erregio-gobernuek eta Osasun Ministerioak ez zuten gure lanari buruz ezer jakin nahi hasiera batean; baina oso lan ona dela ikusi dute beranduago. Guk ere ahaleginak egin ditugu eurengana hurbildu eta proiektuak elkarrekin koordinatzeko. Bananduta izanez gero, ez delako ezer lortzen.

Sustatzaileak ez dituzue soilik osasun arloan trebatu, baizik eta formazio integrala jaso dute.

Caritasekin batera agronomia arloan trebatu ditugu, sendabelarrak landatzen ikas dezaten, barazkiak... basetxeak eraiki ditzaten, eta bertako produktuak hobetu ahal izateko: kafea, ananak, lurra bera... Balo-reetan ere hezi ditugu, eta horri esker tratu hurbilagoa eskaintzen diete gaixoei.

Sustatzaileen inguruan osasun batzordeak eratu ditugu. Batzordea herrixkako bospasei familiak osatzen dute, eta, sustatzaileekin batera, botikina kudeatzen dute. Aldi berean, oinarritzko eliza-komunitateak dira, Jainkoaren hitza irakurri, errealitatea aztertu, hori juzgatu, eta konpromisoa hartzen dutelako.

Konpromisoa zuen lana bereizten duen ezaugarria da.

Bertako jendea oso erlijiosoa da, baina ez dute konpromisorik inorekin; ez emaztearekin, ez familiarekin... Guk pertsonak hezi nahi ditugu, eta beste mentalitate bat buruan sartzen saiatzen gara. Jendearen mentalitate-aldaketa nabaria da azken urteotan.

Nondik lortzen dituzue diru-laguntzak, proiektuak aurrera eramateko?

Proiektuak gobernu kanpoko erakundeei



ARTEAGA koltxoi-denda

Derioko Seminario • 94 454 51 47 • DERIO

aurkezten diegu, eta horiek Eusko Jaurlaritzara edo gobernu zentralera eramaten dituzte dirua lortzeko. Bertoko parrokia batzuetatik ere jaso dugu laguntza. Baina txarto gabiltza orain, diru-laguntzak beste herrialde batzuetako proiektuetara bideratzen baitira gaur egun. Horrezaz gainera, epeak jartzen dizkigute proiektuok burutzeko, eta guk ezin dugu ziurtatu data horietarako amaituta egongo diren. Oso jende behartsuarekin egiten dugu lan, eta proiektuak pixkanaka-pixkanaka eraman behar dira aurrera.

San Frantzisko Xabierkoaren bikarriotzako osasun-programa 2003. urtera arte zuzendu zenuen, eta handik Ekuadorrera bueltatu zinen.

Hiru ahizpa –Marivi (Gernika), Margot (Ekuador) eta hirurok- Ushcurumira bidali gintuzten lagundiko beste etxe bat irekitzera. Lehen aipatutako herrietan martxan jarritako proiektuak eta filosofia Ushcurumin ere sustatu genituen. Lau urte eman nituen bertan, eta orain urtebetea daramat Liman.

Zertan zabilzate han?

Hierbateros herrian gaude eta eta Siete de Octubre muinoko lagunen premiei erantzuten diegu. Muinean landatik etorritako iheslariak batzen dira, eta oso leku arriskutsua da. Gainera, garai batean Sendero Luminoso erakundeak kontrolpean zuen erabat. Erakunde horrek ia nekazari guztiak hartzen zituen, eta, alde bateatik, ulergarria da: behartsuek aldaketa nahi zuten; ez zuten modu hartan bizi nahi.

Muinean hartzaindegia zabaldu dugu eta han hiru hilabetetik bost urtera bitarteko 150 ume ditugu. Hartzaindegiarekin ama ezkon-

“Pobrezia ez da soilik ekonomikoa, intelektuala ere bada”

“Askapenaren Teologia bidea dena ziur gaude Mesedetakoaren Lagundikook”



gabiei ematen diegu zerbitzua, baita senarraren aldetik laguntzarik jasotzen ez dutenei ere. Orokorrean emakumeek eraman behar dute etxearen ardura; senarrak nahiko axolagabeak izaten dira.

Hartzaindegiak bertako emakumeengana hurbiltzeko aukera eman dizue; muinoaren atea zabaldu dizue.

Proiektu berri bat bultzatu dugu emakumearen inguruan, eta horri esker helduek zein neskatok hezkuntzara dute sarbidea. Laguntza psikologikoa ere ematen diegu: askok trauma handiak dituztelako: bortxakeriak, tratu txarrak...

Beste alde batetik, lan egiten duten umeak muinora bazkaltzera joan daitezela lortu dugu, eta arratsaldean ikas dezatela. Era berean, unibertsitatean edo karrera teknikoak ikasten dabiltzan batzuei ematen diegu laguntza. Hango etxeak erabat hondatuta daude, eta horiek konpontzeko irtenbideak topatzen ere laguntzen diegu.

Zelan hartzen dute laguntza?

Iniziatibak eurengandik ateratzen ahalegintzen gara; beharrezkotzat dituzten gauzen berri ematen dute bileretan. Mikroenpresak sortu nahi ditugu orain: zukuak saltzeko, ehungintzarena... Baina ez dute talde-lana egiteko ohiturarik, eta kostatzen da. Emakumearengana heltzen saiatzen gara gehienbat, aldaketa eurgatik etorriko dena ziur gaudelako.

Pobrezia ez da soilik ekonomikoa...

Ez, intelektuala ere bada, eta, era berean, organizaziorik ezak eragina du pobrezian. Behartsuek jai dute, eta are gehiago Estatu Batuekin TLC hitzarmena sinatu ostean. Hitzarmenari esker, erraztasun handiak egongo dira Peruko produktuak Estatu Batuetara



Hotel Tryp Sondika



Ezkontzak

**OSPATU ZEURE EGUNIK
BEREZIENA GUREKIN**

Jaun-hartzeak



TRYP

HOTELES

Carretera de la Avanzada, 2-4 • SONDIKA - 48150

Tel: (34) 94 530052 • Fax: (34) 94 4530620

E-mail: tryp.sondika@solmella.com

“Familiarteko giroa dugu jaietan”

Azterketak eta San Joan jaietako prestaketa-lanak uzatartu egin behar izan dituzte Sondikako jai-batzordearen neska-mutilek. Hala ere, ez dira bakarrik egon behar horretan, eta herriko beste taldeen laguntza jaso dute, eta jai-batzordean aurretik ibili diren lagunena ere bai. Bea Ortizek eman digu emaitzaren berri.



Euskal ezkontza antzeztuko dute

“Sondikan, 1880. urteko maiatzaren 8an. Gaur Isidro eta Rufina ezkonduko dira. Rufina de Videa Meñicak 26 urte ditu, eta Sondikako Jose Videa Astica eta Mungiako Maria Concepción Meñica Laredogoytiaren hirugarren alaba da.

Isidro Madariaga, Loiuko da eta 22 urte ditu. Senargaia Francisco Madariaga menor Urresti –Sondikan jaioa- eta Erandioko Manuela Ycaza Miragayaren laugarren semea da. Ezkonberriak Sondikako Goiri auzoko Gezura baserrian bizi izango dira. Etxera sartzeaz batera, ezkontza-kontratuaren berri izango dugu, baita dote eta arreoaren berri ere [...]”.

Sondikako Gorantzaileak dantza taldeak mende bi egingo du atzera, eta 1880. urteko euskal ezkontza batean parte hartzeko gonbidapena luzatuko digu. Ezkontza ekainaren 22an, domekaz, izango da, eta San Joan jaietako egitarauaren barruan egingo dute. Ekitaldian Ipar Elaiak txistu taldea, Olagüe abesbatza, Bizkaiko Gaiteroak, Usansoloko Oinarin dantza taldea, Bertoko soinu tresnen elkarte eta Trikitiku trikitixa taldea arituko dira dantza taldearekin batera. Segizioa zarpantzarrek, senideek, epaileak, medikuak eta lagunak osatuko dute, besteak beste.

Gorantzaileak dantza taldeak euskal

ezkontza antolatzen duen bigarren aldia da. Lehenengoa duela urte bi egin zuten, taldearen 40. urteurrenarekin bat eginez. “Jendetza handia batu zen herrian orduan, eta oraingo honetan ere horrela izatea espero dugu”, esan du Izaskun Lloña Gorantzaileak dantza taldearen arduradunak. Aurtengo euskal ezkontzak duela urte biko ereduari jarraituko dio, “pozik atera ginelako emaitzarekin”.

Segizioa berritu da

Aldaketa bakarra segizioan izango da, izan ere, bertan parte hartzeko deia zabaldu dute arduradunek, eta jende berriak eman du izena. Horrezaz gainera, jota taldeetako gurasoek eta taldearen dantzari nagusiek ere osatuko dute segizioa.

Ezkontza goizeko 12etan izango da, eta ezkonberriek ibilbide hau egingo dute familia eta gonbidatuekin batera: Lehendakari Agirre, Txorierrri etorbidea, Aresti eta San Joan landa. Eguerdiko ordubietan herri-bazkaria egongo da; eta arratsaldean, erromeria eta berbena.

Antolatzaileek euskal ezkontza urte birik behin egiteko asmoa dute. Urte batean Santa Kurtzeko jai-egitarauaren barruan antolatuko dute; eta hurrengoan, zaindariaren jaietan.

Ondo adostu duzue dena...

Herritar guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatzen ahalegindu gara, baina zaila da asmatzea eta guztiak pozik izatea. Dena dela, aurreko urteetako ereduari jarraitu egin diogu, derrigorrean egin behar diren gauzak daudelako: sukalkia, pintura lehiaketa, gazta eta txakolin dastatzea, suak...

Lehenengo berrikuntza txupinazoak ekarriko digu.

Eguenean Pentagrama taldearen emanaldia izan arren, jaiak barikuan hasiko dira ofizialki. Aurtengo txupinazoa aldatzea pentsatu dugu: arratsaldeko 8:30etan izango da eta, betiko moduan, petardo bi bota beharrean, konfetiz betetako suziria botatuko dira. Horren ostean, txahal-okela dastatzea egongo da, eta San Joan landara jendetza hurbilduko dela uste dugu. Astelehenean umeentzako ekintzak izango dira, eta arratsalderako motozerren erakustaldia egingo da. Motozerrez egingo diren piezak publikoaren artean zozketatuko ditugu. Beste alde batetik, dantzen agerraldia domekan izaten da, baina aurtengo zapatuan egingo da, domekarako euskal ezkontza antolatu delako.

Herri-kirol arloan ere nobedadea dago.

Orain arte gizon-proba eta harrizulataileak izan dira, eta aurtengo harrijasotzaileak eta aizkolariak ekarriko ditugu.

Zein izango da ekitaldirik erakargarriena?

Patxi Perezen saioa, nire ustez. Bere taldea gitarra-joleek, bateria-joleak... osatzen dute, eta Patxi euskal dantzak dantzatzeko irakasten dio publikoari, pausoz pauso. Erakargarria izango dela uste dut. Adin guzientzako ekitaldia da, eta jendea animatzea espero dugu.

Zein berezitasunik dute Sondikako jaiak?

Egia esan, gure jaiak eta beste herri batzuetakoak aldi berean izaten dira. Beste herriek presupuesto handiagoa dute eta, horren ondorioz, jendetza erakartzen dute. Gu oztopo hori gainditzeko saiatzen gara, eta bertokoen gustukoak izan daitezkeen ekitaldiak antolatzen ditugu. Jendeak giro ederra topatuko du Sondikan, familiartekoa. Gainera, karpa erraldoi bat jarriko dugu, eta, euriak arituz gero, ez dugu jaietan ibiltzeko gogorik galduko.



Jai-egitaraua

Ekainaren 19an, eguena

19:30: Pentagrama soinu elkartearen emanaldia, Kultura Etxean.

Ekainaren 20an, barikua

16:00-19:00: Haur-parkea, Guraso elkartearen eskutik.

16:00-18:00: Arku-jaurtiketa, Guraso elkarteak antolatuta.

17:30-19:00: Diskoteka, Guraso elkartearen eskutik.

19:00: Bigantxak.

20:30: Txupinazoa eta txahal-okela dastatzea.

21:00: Tortilla txapelketa.

23:30: Kontzertuak: Identidad oculta + Amañur + DJ.

Ekainaren 21ean, zapatua

09:00: Pintura lehiaketa.

11:30: Kalejira, Elaiak txistu taldearen eskutik.

12:30: Potxin eta Patxin pailazoak.

13:00: Gazta eta txakolin dastatzea.

16:30: Mus txapelketa.

18:00: Dantzen agerraldia.

19:00: 'San Juan' Futbol 7 Txapelketa. Fanfarrea

23:00: Suak.

23:30: Futbol 7 Txapelketaren sari-

banaketa.

00:00: Kontzertuak: Koma + Txato plato + Discofiesta.

Ekainaren 22an, domeka

12:00: Euskal Ezkontza. Segizioa Goronda Beko kaletik aterako da.

14:00: Sukalki.

15:00: Herri-bazkaria, San Juan landan.

17:00: Erromeria.

20:30: Berbena, Egan-Berri taldearen eskutik.

Ekainaren 23an, astelehena

12:00-14:00: Haur-parkea.

17:00-20:00: Haur-parkea.

19:00: Motozerren erakustaldia.

23:00: San Joan-sua.

23:30: Kontzertua: Akerbeltz.

Ekainaren 24an, martitzena

11:30: Kalejira, Elaiak txistu taldearen eskutik.

11:30: Fanfarrea.

12:00: Meza nagusia eta aurrekua.

13:00: Herri-kirolak, Batzokiko plazan.

13:30: Jubilatuentzako kopaua.

18:30: Bigantxak.

20:00: Erromeria: Patxi Perez.

21:00: Azken traka.



**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiatuak, kondernaketa, plastifikatuak,
prentsa, zehazkeriak, liburuenak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarric, 2 - Tel. / Fax: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, I

Tfno: 94 453 33 28 - Fax: 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

AM

**Formación
y
Traducciones**

- Ingelesa maila guztietan
- Eskolak enpresetan
- Cambridge Unibertsitatetako azterketak prestaketa, EOI...
- Itzulpenak hizkuntza ezberdinetan

Garaioetza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 453 64 69

Errearteri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

**Consulting
Sondika, S.L.**
9451 48888

Babin Askolizaga
Aspirante-egileak
Alliance
609 475 746

Tel: 94 4531807
Fax: 94 4536027

Mixine, 6 Debea
48150 Sondika-Bizkaia

HARATEGIA * URDAITEGIA

VICTOR

Okela geuk produzitzen dugu;
egiten ditugu odolosteak,
txorizak, txistorrak, solomoak...

Plater aurrekoizinatua


Doñakalea nº 4 • Tel: 94 452 16 17
48150 SONDIKA (BIZKAIA)

ELABORACION ARTESANA



SONDIKAKO JAIETAN DIBERTSIOA BAI!

SONDIKAKO



UDALA

**Etorri eta
parte hartu**

**yedra
floristas**

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sonduki - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - gedrafloristas@telefonosona.com

TXORIERRI
Inmobiliaria

ZUREGANDIK GERTUEN DOZUEN INMOBILIARIA
ARREKUELA ETZA - TANAGROA
ALOKATZEAK - ESKUALDATZEAK
SALEKUNKELAN
SPEZIALIZATUTAKO AGENTZIA

José Ajaite, 2 SONDUKA - BIZKAIA
Tel./Fax: 94 471 42 82 - 94 471 45 11
E-mail: txorierri@telefonosona.com

**guz
ESTILISTAK**

guz estilista, 4 - 48150 sonduki bizkaia, 94 453 14 64

**auto-escuela
SONDIKA**

Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakasuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurreaga 2
Telefonoa 94 471 00 10
48150 SONDUKA Bizkaia

Plaza Ilurrondo, 2 (goia)
Telefonoa: 94 445 90 87
48007 Zurbarandiarri - Bilbo

**ORAIN
GAUTXORI TABERNA**
ERREMENTERI KALEAN
GIROK ONENA
LAGUN ARTEAN

**PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA**

Txoriñeri Et., 30 - 48150 SONDUKA Bizkaia - Tel.: 94 453 35 05 / Juan: 667 78 63 31

Dr. Martínez de Zaldueño
MÉDICO - ESTOMATOLOGO
PROTESIS DE ODONTOLÓGICA DE VITA/LIN
PROTESIS PARRY EE-99

**Clinica Sondika
Dental**

"Manteniendo su Sonrisa Vital desde 1983"

C/ Galtri, 2
48150 Sonduki Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
Fax: 94 453 11 68
e-mail: sondikadental@telefonosona.com
web: www.euskalnet.net/sondikadental

SONDUKA
Albarizta klinika

21 OTOGO BIDEAN
LIN. OTOGO BIDEAN
94 471 03 44

Da. Albarizta 4 - Iruja
48150 Sonduki (Bizkaia)
T. 94 453 02 08

Herrak (Fisiologia (medikoa, kirurgikoa...))
Radiologia
Fisiologia
Anestesia
Respiratoria
Liridura
Ereko osasuntsu

Centro Dental
Txoriñeri

Rocio Astorkia Bordegaray
Tel. 94 453 03 44

Kepa Herguedas Manso
Tel. 94 453 03 44

Maria Clonde Bilbao
Tel. 94 453 03 44

Molina 5, 1º. 48150 - Sonduki (Bizkaia) (Luzeko kateak)
Telef.: 94 471 03 44 - Lantegiak: 94 453 03 44 - www.txorierri.com

ESTHER FRUTADENDA

Etxera eramateko zerbitzua
94 471 03 44

48150-SONDUKA, Bizkaia

Mateo Bidaurreaga Alkate, 2

- ✻ Aurpegi eta gorputz-tratamenduak
- ✻ Hainbat depilazio mota
- ✻ Ezkongaitzako zerbitzua
- ✻ Masaje terapeutikoa
- ✻ Solariuma
- ✻ Erilaxatzeko tratamenduak
 - Harri beroekin
 - Amazonaseko ametsa
- ✻ Makillajea
 - Ikastaroak
 - Zure elxean bertan

20 urte
baino gehiago
adertara arloan lanean

Elbereth

estetika eta masaje-zentroa
gizonentzat eta emakumeentzat

Ceslero 4, behea (Kultur Elkartaren sarreran)
48150 SONDIKA
Tel: 94 453 14 09

Ilustado de Arceaga, 2r, r. 3. dept
48008 HII HCO
Tel: 94 410 23 95



Gal-milako produktuak eta markak: Maria Gulland • Opilio • Intagra • Diet Esthetic • Massage • Thalgo



Erremerterri kalea, 22
Telefonoa: 94 453 57 54
48150 SONDIKA (Bizkaia)
www.zerurena.com
e-mail: zerurena@zerurena.com



nexis
www.nexis.es

IP Dideo zaintza Argazkilaritza
Errepresentazko informetika

Iburigane, 1 | 48150-SONDIKA | Tel: 94 453 25 99 - 606 43 68 99



Erremerterri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

FONTANERIA DOBARAN

Berriztatze - lanak:

- Etxebizitzak
- Suetsak
- Bainugelak

☎94 453 3860
☎658 75 9084
Mozina 4 • 48150 SONDIKA

Goiri 78 S. L.
Servicio Oficial

POL. IZARZA
Tfnos: 94 453 25 15
94 453 39 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

CMA3 AUXI
Zentro Mediko Estetikoa

Otsaone, 1, Ionia 48150 Sondika
Tel: 94 471 03 04 / 671 50 26 66
cmcauxi@telefonica.net

GALAISA

Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51



Etengabeko
ordutegia

Sabino Arana 1-3, SONDIKA



ESPECIALISTAS EN SONIDO

José Beltrán Galle

Isorlerri azarbidia 15
18040 sardika
Bizkaia efno: 991 503 375

www.proaudio.es
proaudio@proaudio.es

- A-R
- navegacion
- telefonos
- seguridad
- competicion
- personalizacion

Ondare Historikoa inauguratu dabe Larrabetzun



Larrabetzuko urigune historikoa berreskuratzeko beharren hirugarren fasea orain dala gitxi amaitu da, eta horren inaugurazioa maiatzaren 17an egin dabe. Inaugurazioan Jose Luis Bilbao ahaldu nagusia, Foru Aldundiko ordezkariak eta Txorierriko alkateak izan ziran, besteak beste.

Tomas Ordeñana Larrabetzuko alkateak azaldu eban legez, foru errepide bi urigunetik bertatik pasatzen dira, Andra Mari eta Mikel Zarate kaleetatik hain zuzen be. Eta hango zirkulazinoa semafoaren bidez antolatzen zan lehen. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak monumentu-multzo historiko eta artistikotzat jo eban urigunea 2000. urteko ekainean. Hori dala-ta, ondare historikoa berreskuratu eta eremu publikoa birgaitzeko beharrak hasi zituan Udalak. "Larrabetzuko saihezbidea egin behar izan zan, eta, holan, konponbidea emon jakon eskualde-errepidea urigune historikoaren erditik pasatzearen arazoari".

11.400 m²ko azalerea

Urigune historikoa berreskuratzeko obrak hiru fasetan egin dira, eta urigunearen inguruan kale barriak egokitu behar izan dira, barruko zirkulazinoa berrantolatzeko. Lehenengo fasea 1999. urtean burutu zan eta horri esker 900 metro karratu berreskuratu ziran udalerriko plazarako.



Bigarren fasea 2003. urtean amaitu eben, eta plazatik Andra Mari eleizara arteko zatia atondu ostean, 1.100 metro karratu berreskuratu ziran. Hirugarren fasean 1.500 metro karratuko azalerea lortu dabe Askatasunaren enparantzatik Anguleri jauregi-arte. Beharren ostean, urigune historikoa 11.400 metro karratu baino gehiagoko azalerea dau.

Monumentu-multzo historikoa eta artistikoa behin betiko berreskuratzeari gainera, beste helburu batzuk be lortu dira. "1,2 hektareako ingurua oinezkoentzat atondu da, eta topaleku eta aisialdi-leku lasaia bihurtu da. Era berean, motordun ibilgailuen zirkulazinoa ingurune berezi honetatik atera egin da, eta orain dala urte batzuk ekarzan zarata eta kutsadura be kendu dira".

Beharrotan 870.919 euroko aurrekontua erabili da. Hori finantzatzeko, 150.611 euro jarri ditu Bizkaiko Foru Aldundiak eta 140.903 euro Conten enpresak.



Etxebizitzak Zamudioko erdigunean



1, 2, 3 eta 4 logela dituzten etxebizitzak • Duplex
Merkataritzako lokalak • Garajeak eta trastelekuak • Zamudioko erdigunean



• Saltokia: Pago Kalea, Zamudio
Ordutegia: martitzizenetan eta eguenetan, 9:00tik 13:00era

languntzaileak

BBVA



94 452 31 76
94 679 31 42

SAETXE
urbanizaciones

Euskara lau haizeetara

Maiatzaren 23tik 26ra bitartean Euskal Astea izan da Zamudion, Lagatzu bertako euskara elkarteak antolatuta. Euskal Asteak bederatzi urte bete ditu aurten, eta, antolatzaileen esanetan, lagun gehien bildu duen edizioa izan da. Kalitate handiko ekitaldiak eskaini dizkiete zamudioztarrei, eta horrek jendea erakartzen lagundu die.


Astea barre egiten hasi zuten barikuan. Larrikun antzerki taldeak *Greban gaude* lana antzeztu zuten Zamudiotarren eta horren ostean, kanta-afaria egin zuten Galbarriatuko txokoan. Afarian 80 bat lagunek hartu zuten parte, eta momentu hunkigarriak asko izan zirela esan digute Lagatzukoek. Zapatuan euskal dan-

tzak dantzatzeko zuten Aiko taldearen eskutik, eta arratsaldean *Gu eta gutarrak* ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten. Domeka goiza mendian eman zuten Zamudioko txokoak ezagutzen, eta berriak indartzeko herriko txakolinen dastatzea egin zuten plazan. Arratsaldean umeek -eta

gurasoek, zergatik ez- ilusio handiz itxaroten zuten momentua ailegatu zen: Pirritx eta Porrotx pailazoen saioa. Giro itzela egon zen kiroldegian; alaitasunaz eta magiaz beteta.

Igor Urrutikoetxeak eta Alex Azpirik amaiera eman zioten Euskal Asteari. Horiek Kurdistanen bizi izandako esperientziak kontatu zituzkieten Zamudiotarren bildutako publikoari. Euskara lau haizeetara zabaldu da Zamudion.

Argazkiak: Lagatzu



harategia - urdaitegia

MIGUEL

ESPECIALITATEAK -
UROALAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERRIO 48160 * T: 451 52 91

Herrero 104/106, 1
tel.: 945 089 500

Nahikari

Bibxitegia • Erinju-denda

tel.: 945 089 500

945 089 500

multiprecio

Rakel

Gorbea, 11 berriz - 48101 (X) 48101
Sakelako telefonoa: 665 70 28 35





biok

DISEINUA | CREANDO ESPACIOS



- eraikin proiektuak
(berrikuntzak, lokalak, etxebizitzak, enpleguak eta enpleguak)
- berrikuntza integralak
(etxebizitzak, enpleguak, merkataritza lokalak, enpleguak, enpleguak... (gizarte proiektuak))
- hirigintza eta obra zibil proiektuak
- 3D modelaketak (infografiak)

boko kalea, s/n 48100 MUNGIA (Bizkaia)
www.biokdiseinua.com @biokdiseinua

tf./ fax: 94 653 70 36
 sakeloko tf.: 615 744 637

40106 LEZAMA, BIZKAIA
 Boko kalea, 7 48106 LEZAMA

EXCAVACIONES AZURMENDI

wpelarp@excavaciones.com



MÓVIL: 649 102 132
 Tel./Fax: 944 554 130

“Kaleko kultura hurbildu nahi diegu herritarrei”

Sortzaileek taldean zortzi urte eman ostean, gazteagoek hartu zuten erreleboa iaz. Arte Urbano Derioko elkarteak berregituratze handia izan du, eta horren ardura Eneko, Ibon eta Gontzalek dute gaur egun. Maiatzean ‘VI. Jam Hip-hop’ jaialdia antolatu dute herrian.



Testua: Bestorrene

Zer da Arte Urbano?

Kultura-taldea gara. Kaleko kultura guztiak batu eta bandalismoarekin zer ikusirik ez dutela erakutsi nahi dugu. Artea dela; eta batzuentzat bizitzeko modua, gainera. Aurten graffitiak landu ditugu, eta iaz batukada eta capoeira. Beste arlo batzuk ere jorratzen ditugu: hip-hop eta breakdance, esaterako. Mugimendu horiek guztiak herriari hurbiltzen ahalegintzen gara, eta kultura marginala izatearen ideia burutik ken dezatela, berez ederrak baitira. Graffitiak, esate baterako, fama txarra du, baina biolentzia gutxitzeko jardueratzat sortu zen bere garaian. Ez da izorratzearen egiten; zentzua du, eta egiten duenak badaki.

Zelako harrera izan dute arte berri horiek gure inguruan?

Hip-hopa nahiko zabaldua dago Txorierriin. Kontzertuak egon dira Zamudion, Sondikan eta Derion, eta talde hasi berriek eszenatoki gainera igoteko aukera izan dute. Sondikan talde bi daude, lau Derion eta beste bat Larrabetzun. Beste alde batek, graffitia ez dago oso zabaldua gure bailaran; Bilbon egiten da gehiago. Beste modalitateak ezezagunagoak dira gure artean.

Laguntzarik duzue aurrera egiteko?

Taldea hiru pertsonak osatzen dugu gaur egun; hala ere, askotan derrigorrean eskatu behar diegu laguntza lagunei edo anai-

Larrondoko Ikastetxea ESPERANZA ALHAMA Lanbide Heziketa



Zikloetarako aurrez izena ematea: ekainaren 2tik 13ra •

Matrikulak: ekainaren 30etik uztailaren 4ra •

Heziketa zikloak: erdi mailakoa eta goi mailakoa

Erdi mailakoa

- Ekipo eta instalazio elektronikoak (2.000 ordu)
- Administrazio kudeaketa (1.300 ordu)
- Merkataritza (1.400 ordu)

Goi mailakoa

- Administrazioa eta finantzak (2.000 ordu)
- Sistema informatikoen administrazioa (2.000 ordu)
- Nazioarteko merkataritza (2.000 ordu)

LIHK (Lanbide Hastapenerako Ikastegia)

- Behe tentsioko instalazio elektroteknikoetarako langilea
- Elektromekanikoa
- Merkataritzako laguntzailea
- Bulegoko laguntzailea

INEMeko ikastaroak

Lanerako prestakuntzako ikastaroak

- Eusko Jaurlaritzak babestutako zentroa

Hobetuz

Larrondo 2 eta 4, LOIU (BIZKAIA) e-mail: ealhamal@sarenet.es - Informazioa: 94 471 01 51

arrebei. Aurtengo jaialdian, adibidez, 16 taldek hartu dute parte eta lan handia egin behar izan da. Gustatzen zaigun lana da eta pozik egiten dugu, baina denbora handia eskaini behar zaio. Bateren batek gogorik badu, pozik onartuko genuke horren laguntza.

Aurrekontuei erantzuteko, laguntza jasotzen dugu Udaletik; baina, egia esan, ez dugu diru gehiegi behar: ekartzen ditugun taldeak hasi berriak dira eta ez dute asko eskatzen.

Zelan irten da Hip-hop jaialdia?

Lagun gehiago espero genuen, Xhe-lazz kartelaren burua zen, ospe handiko abeslaria baita. Dena dela, balantze ona egin dezakegu: taldeak oso pozik irten ziren eszenatokitik, eta publikoa ere bai; eguraldia lagun izan genuen... Ondo, beraz. Eszenatoki ondoan panel batzuk jarri genituen, nahi zuenak bertan margotu ahal izateko. Eta, bide batez, herria ez pintatzea lortu genuen. Muralak bete egin ziren; arrakasta izan zuten.

“Jaialdiak bertoko taldeei eszenatokira igotzeko aukera ematea du helburu”

Eta aurrera begira?

Rap jaialdia egiten jarraitu nahi dugu; baina rock edo punk-rock musika estiloetara ere zabaltu nahi dugu, Txorie-rriko talde askok musika hori jotzen baitute gaur egun. Lezaman, adibidez, badago gazteek osatutako talde bat oso ondo jotzen duena. Jaialdiaren bidez bertoko taldeei eman nahi diegu aukera gehienbat, nahiz eta kartela betetzeko ezagunagoa den kanpoko talderen bat ekartzen dugun. Baina talde gehienak bertokoak dira.

Ikastaroak antolatzeko asmorik?

Graffiti, batukada eta capoeira ikastaroak antolatu nahi ditugu neguan. Ahaleginduko gara, baina zaila da, gero jende gutxi dator-eta. Graffiti ikastaroa egiten denean, esaterako, graffitiegile on bat ekartzen dugu, parte-hartzaileei zelan hasi zen azaltzeko eta erreferentzia bat izan dezaten. Horrezaz gainera, panelak jartzen dira eta animatzen denak bertan margoten du.

Nobedaderik buruan?

Datorren urtean kontzertuak egin nahi ditugu udan, ekainean-edo, garai horretan ez baitago ezer herrian.

PATXI COOP. T.I.
Concesionario Zamudio

Mahou
★★★★★

Carlsberg

Tel: 94 452 25 87
670 87 37 14
Uliquidepuren Industriak I
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

MARMOLERÍA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
fatxada, atariak eta hilerriak

Torrelamagoli Ind., P. 7B - nabe 2.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Tel./ Fax: 94 608 01 41 - 2

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lekuakari Luigola Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

Bocateria
otarteko
Pizzeria

2x1
Bocateriako kategorian
pizza txiki eta handi bat
erdi eta bat ordaindu

ETXEE ETXEN ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO TLF: 94 452 11 42

TXAKOLINA
LUISARRE

11% Vol. 75 cl.

Garaioleiza, 87
Tel: 94 455 65 41
670 87 37 36

Bizkaiko Txakolina.
Denominación de Origen

Victor Gamboa Garabietak biltu, prestatu eta botilatzen
LEZAMA SPAIN
N.R.F. 48/4050/R

BAR RAFI

ESPEZIALITATEA: PINTXOAK

Rafael Garcia Tejero

C/O Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Tel: 94 406 08 08
Mobila: 907 406 813

Garbiketak
Ekotxori

Teléfono:
670 71 25 61
94 451 35 91

Udako garbiketa, 1
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Web:
94 452 33 93

CARROCERIAS
TXORIERRI
Gran Autocentro Nuevo

TXAPA ETA LABE PINTURA

Torrelamagoli Pol. Vial sat C 10, Nave B5 1 48160 Zamudio BIZKAIA
Tel/Fax: 94 452 29 03

Garmendia
ardoak

Finca pol., P-3B
25A/1119710
Tel/Fax: 94 452 00 49

ERREKA
ONDIO
ETXEA

Eguneko menua, astaburuko menu berezia,
karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak,
famillan bazkariak

Artiagoitia, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Iteloa: 94 452 14 39
Fax: 94 452 20 29

GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Bilbao Salinas plaza, 5 - Txakolineria Txakolineria, 7. Solina, 1. Opatu - 40011 DEBAGO
Teléfono 94 451 80 10 - Fax 94 451 82 12
Zamudioko Kiroldegia: Teléfono 94 452 21 20 - Fax 94 452 30 74

Bakarrik jaten ez duten zaharrek nutrizio hobe dute

Gero eta gehiago dira herrialde garatuetan bakarrik bizi diren zaharrak. Horrek ondorio garrantzitsuak izaten ditu osasun publikoan, faktore psikofektiboez gainera.

Joan den hilabete sinposio bat egin zuten Zornotzako Igorco Orue zahar etxean, eta han zaharren jateko moduak edo ohiturak izan zituzten mintzagai. Arantza Perez geriatrak azaldu zuenez, jatorduek elikagaiak ematen dituzte organismoek modu egokian funtzionatzeko, baina, gainera, faktore soziokulturalek eragin handia izaten dute jatordu horietan. Hain zuzen ere, faktore horien ondorioa da bakarrik jaten duten zaharrek desnutrizio arazoak izatea. Jatorduak lagunarte barik egiten dituztenek garrantzi txikia ematen diote janariari, eurentzat galdu egin delako janariaren alderdi soziala. "Joera horrek ondorio kaltegarriak izaten ditu; eta asko, gainera". Dietan ohitura monotonoak izatea da haietako bat.

Gorputzak era askotako elikagaiak behar ditu, baina zahar batzuek jaki berdintsuak hartzen dituzte egunero. Askok oso gutxitan prestatzen dute jatekoa, eta plater bakar bat egiten dute hainbat egunetan jateko. Beste alde batetik, mastekatzeko eta irensteko zailtasunek dieta bigunak



aukeratzera behartzen dituzte eta zahar batzuek modu desegokian egiten dituzte jatorduak. Faktore horien guztien ondorioz, elikadura okerra izan dezakete.

Kultura eta ekonomia faktoreak

Baina jateko ohiturak ez ezik beste faktore batzuk ere hartu behar dira kontuan, Perezen iritziz. Horrela, zaharren kultura mailak eragina zuzena izaten du aukeratzeko duten dietan. Egoera ekonomikoak ere zerikusia izaten du horretan, "dietarik merkeenak koipetsuak dira eta azukre sinpleak dituzte. Kaloria gehiegi hartzen dira

“Zaharren kultura mailak eragina zuzena du dietan”

eta gehiegizko pisua izateko arriskua dago”.

Geriatrak sinposioan jakinarazitakoaren arabera, gizartetik eta familietatik bereiziz bizitzeak elikadura ez zaintzea ekartzen du; lagunartean bizi direnek, berriz, nutrizio hobe izaten dute orokorrean.

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Ustez alkatik, urtikarion
Auzokoen konpainiak
Masamala jabi-irakur
Holeysen eta bolarak
Ustez amonaren garbiketa
Lantzenak
Zahar biltzaia

Bizkaile Plaza, 1 - Bº Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
lologarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

MAPFRE
DERIO

Polizaketa plaza 2/6
48160 Derio (Bizkaia)
T + 94 454 85 00
F + 94 454 05 00
artara@mapfre.com

MAMEN mertzeria

Galko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...

IGOGAILUAK

ARLAN
ASCENSORES

902 54 08 54 www.arlan.biz

Euskara 21 gunea

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskara 21 gunea jarri du abian: *blog.euskara21.euskadi.net*. Gune horrek gogoeta ireki bat proposatzen dio euskal gizarteari, XXI. mendean euskararentzat nondik norako bidea nahi dugun aztertzeko.

Ekimenaren abiapuntua Oinarrizko

Txostena da. Hori euskal kulturako eta gizarteko pertsona adituek idatzi dute, eta euskararen egoerari buruzko gogoeta sakona eskaintzen du, ekimenari oinarri sendoa ematearren. Txostena kontsultatzeaz gainera, gogoetan parte hartzeko aukera du erabiltzaileak, baita gogoetaren inguruko berriak jarraitu ere.

[illegible]

Komunitate eta foro berriak zabaldu ditu Euskosarek

Euskosarek Euskalerria komunitatea sortu du maiatzean. Horrek Euskal Herriarekin lotura duten gaiak buruz eztabaidatzeko gunea izatea du helburu. Beste alde batetik, ‘Mesederik nahi?’ gazte euskaldunei zuzendutako interneteko foro soziala ere bultzatu dute. Gune horren bitartez, gazteek euren ideiak modu ireki eta zabal batean erdibanatzea nahi dute arduradunek. Informazio gehiago: www.euskosare.org.

Soft librea erabiltzeko bideo- laguntza, sarean

Euskalgnuk GNU/Linux sistema eragilea nola erabili azaltzen duten 18 bideo eskegi ditu ehux.ehu.es/bideo-oak webgunean. Bideo horietan Gnome mahaigainari buruzko azalpenak batzeaz gainera, beste programa batzuei buruzko xehetasunak ere ematen dituzte: InkScape, Open-Officeren adarrak edo Gimp, esate baterako. Azalpenak euskaraz agertzen dira.

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 08

OBRAS Y REFORMAS
 94 406 04 01 / 615 742 788
Gorrotxa
Berriztatze integralak
Gremioen koordinazioa
 Lehendakari: Iñakiñe Aguirretxe, 2. helburu
 48170 ZAMUDIO
 Tel: 94 406 04 01 - Fax: 94 406 04 00
 Mobilak: 615 742 788

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Talleri kalea. 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

OPTIKA IKUSLAN
Detektoreko graduatua
Konfektu lanak
Eguzkitako hutsurrekoak
Tasamagari markak
Oiz kalea, 3 bilboa; 94 452 28 18 ZAMUDIO



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Tornelarregaltz Ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 87 09

40170 ZAMUDIO (Gisakoa)

Gorka Zarate, txistularia, albokaria, dultzainerua...

“Inguruan dodazenak ondo pasetan badabe, helburua beteta”

Musikearen laguna zarala dinozu. Zein da zure helburua, Juanmari Beltranen ikerketetan agertzea ala beste barik ondo pasatzea?

Argi eta garbi, nik ez dot inon agertu gura; nire inguruan dagoenak ondo pasetan badabe eta gaztetxuak herri musikara hurreratuten badira, helburua beteta. Hori bai, sartzen nazen gauzetan ahalik eta ondoen egitea gustatzen jat. Ze mailataraino? Ez dakit, nik egunero jotzen dot albokea, jo ezik ezin da instrumenturik ikasi. Erreferenteak Ibon Koteron, Fede de Dios, Julen Begoña, Juanmari Beltran neurri baten... izan daitezke; horreen mailara heltzea pentsatu be ez dot egiten, gainera ez da nire mundua atzo etorria naz-eta, baina ahal danik eta ondoen jotea gurako neuke, bai.

Gainera albokea zeuk egiten dozu, ezta?

Albokarien mundu tradizionala beti izan da sarratua: joteagaz batera, eurek egiten ebezen albokak, fiteak... Gaur egun hori aldatu egin da, saldu egiten dabez. Niri, os-

Gorka Zarate lezamarrak zainetan daroa musikea, melomano pasiboa eta aktiboa da. Badaki zein dan argitaratu dan azken diskoa eta badaki bertoko hainbat instrumentu jotzen be, edota Iparraldeko pastoralaren osteko gau luzean bertakoakaz kantetan...

tera, gustatu egin jat albokearen barruko muina zein dan jakitea; neuk egiten dodaz, bai.

Txistularia, noiztik?, zelan?

Hamaika urtegaz edo hasiko nintzan, aiti-tak Donostia aldean erosita osaba Mikelek euki eban txistu bategaz, eta ondiño be horregaz jarraitzen dot. Gaixoardi baten hasi nintzan neure kontura, ekin eta ekin. Gero seminarioan irakaslea be euki neban eta gero Larrondo aldeko Mezoren klaseetara be bai. Hamasei urtegaz edo, herriko batzuk alkartu ginan fanfarria txiki bat osatzeko: ni txirulagaz, Iñigo Beasko soinuagaz, Alberto Larrenakoa... Esperien-

tzia polita izan zan. Aurrerago, gaztetako rock musika zaletasuna zala-ta, beste taldetxu bat montatu genduan. Jaietako erromerietan, Derioko institutoko inaugurazinoan, San Lekeatan..., hainbat lekutan jo genduan. Guzti horrek markatu egiten zaitu, ezta? Eta geroago, zorionez, beste musika zale bategaz ezkondu nintzan. Umeak apur bat hazi arte geldirik egon eta gero, koskortu diranean barriro hasi naz.

Zergaitik albokeagaz?

Ba, umetarik entzun dot etxean, jaio nintzenean aitatik, aitak, Artxandako Etxebarria erdi senide eta Txilibrinek (albokeagaz) itzelezko parranda egin ebela, berak alabak bakarrik izanda aititentzako “lehenengo” mutila nintzelako. Horregaitik, eta neuri be bertoko instrumentuak beti gustatu jatazalako, hasi naz albokeagaz. Ibili nintzan topetan irakasle on bat eta Fede de Dios aurkitu neban eta... Fede “ladedios” da. Irakasle eta lagun dot orain.

Behin hasi ezkerro ba... Hor be erdi autodidakta eta Fedek bideratuta, bagabiltza dultzaineari be zarata apur bat ataratzen. Dultzainea eta albokea oso gauza diferentek dira. Eta bide batez, arnasketa teknikak dirala-ta, *Didgeridu* edo *yidakiri* be ekin deusat, arnasketa sistema bera erabiltzen dalako (arnasketa “zirkularra”, “arnasea buelta” esaten eban Leon Bilbaok).

Zein da instrumentuok joteko sekretua, “musturra”, birikiak, dohai bereziak...?

Ez dago sekreturik, ekina okerra da.

Hala eta guztiz be, zeozer bada, ze Gorka sutegirako eta dastaketarako be mustur fineko gizona dala entzun dogu.



Testua eta argazkia: Pospolin

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbolinean jokatu, atorri zaitaz Trippya, Deriara

Beteko Kaleko Baxo
DERIO

Jaietxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OINULTAN ESPECIALIZATUA ETA ETORRI GUTUNTZA AFARUA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Kasua zerbitzuak - Jaietako zerbitzuak - Jaietako pribatuak
Jaietako bolakortzeak - Jaietako bolakortzeak

telefono 94 454 07 58
Fax 94 454 14 18

Mungia Kalea Derio, n. 25
48100 DERIO

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48100 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 648 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.tripmundo.com info@tripmundo.com

Lezamako eskola (1973. urtea)



Orduko denporak gaur egunera ekarri doguz

Nori ez jako gustatzen joandako denborak gogoratzea? Zelangoak ginan antxinako argazkietan ikustea; senideak, lagunak... Goian Lezamako eskolan 1933. urtean ateratako argazkia dozu. Ikasle batzuen izenak badakiguz; zuri faltan diranen barri emotea eskatzen deusugu. Baten bat ezagutzen badozu, edo gure datuak ez badira zuzenak, halan jakinarazotea eskertuko geunskizu. Nola? 944523447 telefono zenbakira deituz; aikortxori@yahoo.es helbidera idatziz edo www.aikor.com webgunearen bidez. Izen guztiak jakin ostean, barriro argitaratuko dogu argazkia.



1 Jesus Bugallo 2 Jabi Elorriaga 3 Jabi Loroño 4 Juan Ramos

“LAIA HOTEL MUSEOA”



Hidromasaje hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal

izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa Berri zentroak relax zirkuitu hau eskaitzen ditu: sauna, vaporiuma, jacuzzi, dutxa inguratzailea eta infragorritzko ohea.

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.



Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren
erantzuna:
18 urte

Irabazlea:
Isabel Llona



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:

Bi laguntzako tratamendua:

TXOKOTERAPIA

(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

**Noiz izan
da Txotxongilo
Eguna?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Bakoren bazterra

Gure aurreiritziak baieztatzea

Sarritan, eskultura edo koadro bat ikusten dugunean, musika entzuten dugunean edo ardo botila on bat zabaltzen dugunean, aldezturik aurkitu nahi genuena aurkitzeko joera dugu; hau da, aurreiritzia baieztatzen dugu. Horrela, sentituko ditugun sentsazioak aurreratzen ditugu sentitu baino lehen, izan ere espektatiba edo aurreikuspen argiak lehenago ezartzen ditugu (horiek txarto ikasitako klaxeak dira askotan), eta txapel-dun sentitzen gara betetzen direnean/ditugunean.

Azken batean, segurtasuna printzipio burgesa da; eskuartearen zer daukagun momentu oro jakiteak lasaitasun handia ematen digu. Baina kezkarria da, eta etsigarria ere batzuetan, benetako sentsibiltate eta askatasunari tarte gutxi uzten baitiegu. Beti izango da hobe artelanak berak gu nahi duen tokira eramatea, eta ez alderantziz.

Ardo botilla dezente zabaldu behar izan dut azken urteotan, eta horrela jarraitzea espero dut. Baina askotan izan dudana sentsazioa baztertu nahiko nuke: aldezturik fiskalizatuta dagoen zerbait eskaintzen dudala. Batzuetan likido preziazua sudurrera edo ahosabaira heldu aurretik baloratzen dugulako eta, horrela, ardoaz benetan goza genezakeenez gozatzeko aukera galtzen dugu. Egia esan, ze demontre!, ardo ez da ulertzen, ez da ikasten; ardo ezagutu egiten dugu, sentitu egiten dugu eta konpartitu egiten dugu. Apaltasun eta sentsibiltate apur batekin askoz urrunago bidaiatzen dugu... eta hobeto. On egin.



*Iñaki Suarez,
sumillerra*

Ettxeko sukaldaritza

Untxi gisatua



*Maite Lekerika,
sukaldaria*

Osagaiak


(lau lagunentzat):

- Kilo bat untxi
- Kipula handi bat
- Azenario bi
- Tomate heldu bat
- Berakatz atal bi
- 150 g txanpinoi
- Lata txiki bat idar
- Oliba-olio txorrostada bat
- Hiru patata ertain
- Edalontzi txiki bat ar-dau zuri
- Gatza eta ura

Prestatzeko era:

Kipulea eta berakatzak ondo txikitu, eta kazola baten ipiniko doguz olioagaz batera. Erregosten danean, untxia gehituko dogu (aurretiaz, gatza botako deustagu). Egiten itxiko dogu. Tomatea eta azenarioak kubotan ebagi, eta untxiari buelta emoten deustagunean botako doguz kazolara. Ardao zuria bota, eta urez estaliko dogu gisatua. Su motelean izango dogu ordu erdian.

Untxia ia eginda dagoanean, patatak, txanpinoiak eta idarrak gehitu, eta su motelean itxiko dogu, patatak egin eta saltsea loditu arte.



NAGUSIAK

Chevrolet tropikala

R. Egiguren

Ihes betea

A. Lertxundi

Zubigile

Lutxo Egia

Festa aldameneko gela

M. Landa

Kaxa huts bat

B. Sarasola

Eskuetan mapak

A. Serrano

Beste eguzkia

I. Madina

HAUR ETA GAZTE

29 ipuin zoro

U. Wölfel

Zomorro gaizto maitagarria

D. Nielandt

Katuaren irribarrea

P. Sagarzazu

MUSIKA

Hamar t'erdietan

Ruper Ordorika

Kalamidadiak

Morau ta Agotak. Hau ez da disko goibel edo tristea. Songwriter ildoko baladak eta doinu akustikoak murriztu eta rock&rollaren arintasuna eta indarra bereganatu dute Morauren kantuek, power-poparen freskotasuna eta lelo itsaskorretarako joerarekin bat eginez.

Taupaden bidetik

Khous

56. gelatik

Karelean

DENBORA PASA

LETRAZOPA

A	T	F	I	L	P	A	O	P	I	O	S	N
F	R	Y	G	O	B	E	G	I	E	F	U	H
R	E	O	P	M	A	L	H	K	O	Ñ	R	J
E	Z	D	K	B	E	S	D	Ñ	J	A	S	G
G	E	I	D	O	P	E	Z	A	E	L	U	I
U	I	R	B	R	S	B	J	K	J	K	L	Y
D	R	H	G	Ñ	F	P	B	R	U	S	O	L
Y	R	I	J	B	A	O	E	L	T	F	A	T
H	A	Z	D	P	M	S	P	A	Y	Ñ	U	N
E	L	A	U	Z	X	H	M	U	T	K	X	U
X	E	E	N	N	N	Ñ	T	S	G	X	M	Z
S	B	I	X	E	R	R	A	L	K	X	Y	M

F	R	G	I	Ñ	A	R	R	E	A	Z	T	G
S	G	F	X	H	E	N	I	D	E	K	U	G
U	A	T	D	U	T	H	Y	S	R	P	U	O
L	B	S	S	R	S	Ñ	B	N	E	M	F	P
F	E	T	K	X	U	T	G	S	B	Y	E	J
T	B	R	B	E	S	D	A	O	A	Ñ	L	H
Y	P	I	A	M	A	L	Z	X	N	S	X	F
A	N	E	M	I	M	J	T	Ñ	A	B	I	I
E	O	J	D	R	S	E	D	O	K	K	J	E
H	Ñ	O	G	Y	R	I	M	E	K	Z	N	P
A	R	E	U	R	E	P	S	I	M	N	M	L
H	P	Z	U	K	N	X	M	J	L	Ñ	A	I

Oraingoan gorputzeari kasu egingo deutsagu. Ia gai zaren buruan ditugun 7 atalen ize-nak aurkitzen* goiko letrazopan. Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean Aikor! 70. zenbakiaren erantzuna. 7 baso landare izen.

EUSKAL HERRIKO d-generazioa



Antzerkia eta filmak

Derio

–El show de Javier Mañón. Ekainaren 13an, 20:30ean, Gurea Aretoan.

–Ino, ino, ino... badator Bonbardino. Ekainaren 15ean, 17:00etan, Gurea Aretoan.

Lezama

–Ipuin kontalaria: Ekainaren 23an, 20:00etan, plazan.

Erakusketak

Sondika

–Udal lantegi eta ikastaroen erakusketa. Ekainaren 11tik 14ra, Goronda Beko kiroldegian.

–Ramon Serraren argazkiak. Ekainaren 2tik 12ra, liburutegian.

Zamudio

–Egur lanketa ikastaroan egindako lanak. Ekainaren 11tik 26ra, Zamudiotorren.

Irteerak

Derio

–Expo Zaragozara. Ekainaren 28an.

Lezama

–Anbotora. Ekainaren 15ean, 08:30ean.

Zamudio

–Iruñera. Ekainaren 11an; izena ematea: ekainaren 6ra arte.

–Isurialdeen – Banalerroaren III. Etapa. Ekainaren 8an, Arroetako antoatuta.

Orio – Donostia. Ekainaren 21ean, Arroetako antoatuta.

Jaiak

Larrabetzu

–San Antonio. Ekainaren 13an, 12:30etik aurrera: txistulariak, puzgarriak, sardina jana, berbena...

Kirola

Sondika, Derio eta Zamudio

–‘Kirolari ateak zabalik’ jardunaldia. Ekainaren 8an.

Sondika

–I. Sondikako Fitness Txapelketa. Ekainaren 14an, Goronda Beko kiroldegian.

Zamudio

–Futbito Txapelketan izena ematea: ekainaren 20ra arte.

Derio

–Two-Ball eta Hiruko Txapelketa. Ekainaren 1ean, 10:00etan, kiroldegian.

–Orientatze-proba, bizikletan. Ekainaren 14an, 11:00etan, eskolan.

Lehiaketak

Sondika

–XII. Kale-pintura Lehiaketa. Ekainaren

21ean; oinarriak, udaletxean.

Zamudio

–Gazte estazioko I. Logotipo Lehiaketa. Oinarriak, bertan.

–Pintura Lehiaketa. Ekainaren 15ean, San Tomas ermitan.

Bestelakoak

Txorierri

–Udalekuetan izena ematea. Galdetu zure udaletxean.

Loiu

–‘BBK Skate Eskola Tour’ ekimena. Ekainaren 8an, Zabaloetxen.

Derio

–Ikasturte-bukaerako kontzertua. Ekainaren 10ean, 19:30ean, Gurea Aretoan.

Lezama

–Euskal mitologia tailerra. Ekainaren 20an, 18:00etan, udaletxeke plazan.

–Kantu tailerreko ikasleen kontzertua. Ekainaren 20an, 21:30ean, Kultura Aretoan.

–‘Cicomotric’ Parkea. Ekainaren 23an, 18:00etan, Frontoian.

Larrabetzu

–‘Jokalata’ haurrentzako ekitaldia. Ekainaren 6an, 17:00etan, eskolan.

–Puenting, Azkoitin. Ekainaren 28an, 16 urtetik gorakoentzat. Izena ematea: ekainaren 9tik 13ra.

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1646

Pol. Torrelagoti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

BAR BIDE-BI

Zamudio
Aukeratu zurea!

goizeko 5etatik,
aurrera zabalik

Gosari bereziak

Telefona: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

CAFE-BAR BIDE-GORRI

Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8000etatik irakaz

Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Tel. 94 452 26 75

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea

Menu barrialak, salbuerak
Itxura erasoetako platerak
Aukeratu zurea!

Egunero menua eta lortu
Jantzeriak eta kokoteak
Jantzeriak zabalik

B.º Garaioltza, 1 • Tfno. y fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

CAFETERIA GRISSON

Fluxua eramateko janaria
Urtebetzuek egiten ari
Asteartetik igandera zabalik

Garaioltza, 12 B. bojo
Telefona: 685 75 11 65
www.cafeteriagrisson.com
48198 LEZAMA (Bizkaia)

GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19


Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gidaritzaren, gure pertsonen inplikazioaren eta hobekuntza jarraikorraren bitartez, berrikuntza eta ingurumenarekiko errespetuarekin batera, Bikaintasuna etengabe bilatuz.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.





Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiekin eta

gainera...

Bidaia-

asistentziako

doako aseguru

abantailak era

guztietako 2.000

establezimendutan.

Deskontuak

mundu osoan

izateko giltza.

Kontsultatu

BBK26 gida,

www.bbk.es

orrian